ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko uztailaren 20a > Astelehena > VII. urtea > 242. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Gai batzuetan kritikoagoak dira, baina kooperatibista sentitzen dira gazteak"

**Arianne Kareaga**
Huhezi > 08

**G2a** Estricalla taldea aurkeztu zuten Arrasaten > 29

**ARETXABALETA** Kultura plana osatzeko lehen fasean, 55 herritar lanean > 11

**ARRASATE** Santamas Komisiñue, Olariagaren ordezko irudigile bila > 15

**ANTZUOLA** Eztala futbol zelaia, oinarri berri eta belar artifizialarekin > 20

**ZERBITZUAK** > KRISIAREN KONTRAKO NEURRIAK

## Ostalariek, turistak erakartzeko eskaera

**SEINALIZTAPENA**
Ibarreko ostalariek eskatu dute Debagoieneko *altxorrak* errepidean seinalatzeko

**DONOSTIATIK**
Ostalariek Donostiara doazen turistei jakinarazi gura diete ibarrean ikusteko zer dagoen > 03



**MAIRUA** Juan Carlos Gomez izan da aurten lehenengo aldiz Abderraman III.a. JOSETXO ARANTZABAL

## Mairuaren Alardea berrikuntzekin dotore jantzi zuten

Antzuolarrek oso begi onez hartu dute aspaldiko ohitura horren berritzea; kanpoko eta bertako jende asko batu zen. Mairuaren itxura eta berarekiko jarrera duindu nahi izan dituzte aldaketekin. Fusileroen artean, gainera, emakumeak egon dira aurten lehenengo aldiz. > 13

**PILOTA** > HERRI ARTEKOA

### Bergararrak, Euskal Herriko finalera

Bergarak Euskal Herriko herri arteko txapelketako finala jokatuko du datorren zapatuan Zornotzan Legutioren aurka. Egubakoitzean jokatu zituzten bergararrek finalerdietako lehiak Iruñearen kontra; kadete eta gazte mailan irabazi egin zuten, eta seniorretan galdu.

Bergarako frontoia jendez lepo bete zen pilotariak animatzeko; hala, zapatuko finalera begira autobusa jarri dute bost eurotan. > 22

**ZIKLISMOA** > ELGETA

### Fabrizio Ferrarik irabazi du Kriteriuma

Lasterketa borrokatua izan zen Elgetako Mendi Kriteriuma; hasierako puntuan zeuden 111 txirrindularietatik 38 bakarrik iritsi ziren lasterketaren amaierarara.

Elgetarako bidean, azkeneko maldan gora, Fabrizio Ferrarik (Caja Rural) aurre hartu zien gainerako txirrindulariei eta bakarrik heldu zen helmugara. Ferrari uruguaiarrak 3:04:57ko denbora egin zuen; atzetik, bi segundotara, Carlos Juez. > 24-25

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**EUSKARA** > AGIRIA

### Bikain ziurtagiria, MUk

ETEOk eta Huhezik, biek, euskarazko Bikain ziurtagiria lortu dute urrezko mailan > 06

**TOPAKETA** > NAZIOARTEKOA

### Arantzeta, Elgetan jaun eta jabe

Munduko punta askotatik etorritako Arantzeta abizena daukaten 170 bat lagun batu ziren zapatuan Elgetan, sorterria bisitatu eta Arantzetarren nazioarteko topaketa ospatzeko. Ekitaldi hunkigarria egin zuten. > 39

Iritsi dira uztaileko opariak! Badago zuretzat?
Zoaz 7. orrialdera





*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

ZERBITZUAK > OSTALARITZA

# Ibarreko 'altxorrak' ezagutzera emateko eskatu dute ostalariek

**SEINALEZTAPENA** Donostiara joaten diren turistek Gipuzkoan askoz gauza gehiago dituztela ohartaraztea gura dute, errepideetan seinaleak jarrita

**KEZKAK** Ostalarien kezka eta ardurak jaso ditu Gipuzkoako elkarteak azken hilabeteotan eskualde guztietan egin dituzten batzarretan

**BABESA** Elkarteak formazioa, babesa eta aholkularitza eskaini gura die ostalariei, negozioak %20-22 behera egin duela-eta indartu daitezen

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Joan den egubakoitzean Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak prentsaurrekoa eman zuen Donostian. Horren helburua izan zen azken hilabeteotan eskualdez eskualde ostalariekin egin dituzten batzarretan jasotako ondorioak ezagutzera ematea.

Ibarreko batzarra Bergarako Lasa jatetxean egin zuten eta han batu ziren herri guztietako ordezkariak. Batez ere, bazkideek ikusten dituzten gabezia eta premiak aztertu zituzten. Hala, ibarreko ostalarien ardura nagusienetako bat da Donostiara joaten diren bisitariei jakinaraztea beste eskualdeetan ere badituztela ikusteko gauza ugari. Horren harira, uste dute Aldundiak eta beste erakunde batzuek errepideetan Debagoieneko turismo eskaintzaren berri eman behar dutela seinaleekin.

**TERRAZEN INGURUKO ARAUTEGIA**

Landu zituzten gaien artean berbagai izan zen, baita ere, terrazen gaineko legeria. Hala, antza, Bergarako Udalak alor horretan onartu duen arautegia Gipuzkoako beste herri eta hiri batzuetakoa baino murriztaileagoa da: terrazetan hamarrera mugatzen du mahai kopurua.

**KRISIAREN ONDORIOAK**

Bestalde, Ostalarien Elkarteak azaldu zuen orokorrean euren alorrean negozioak %20-22an behera egin duela Gipuzkoan.

Horri aurre egiteko baikor dira uste dutelako aurtengo udan Euskal Herriko bertako bisitari gehiago izango direla probintzian. Hala, ostalarien lehentasuna azpimarratu dute: "Gure etsaia da bezeroa etxean gelditzea; hori da saihestu behar duguna".

Horrez gain, formazioaren aldeko ahalegin gehiago egiteko eskatu diete bazkideei eta horretarako laguntzak eskainiko dituztela jakinarazi dute; batez ere, barran eta jangelatan aritzeko. Hain zuzen ere, elkartearen esanetan, Gipuzkoako jana eta edana erreferente dira mundu osoan, eta hori zaindu egin behar da.

2009 eta 2011 bitartean indartu gura dituzten alorren artean, badira beste batzuk ere: arrakasta izan duten ekimen eta ideiak batzen dabiltza, eta horiekin praktika onen gaineko gida kaleratuko dute, guztien lagungarri izan dadin.

Eta ez hori bakarrik; gastronomia abiapuntu izango duten turismoa promozionatzeko ekitaldiak babestu gura dituzte.

**ELEKTRIZITATE HORNIDURA**

Bestalde, Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak 1.117 bazkideei jakinarazi die, merkatu elektrikoan eman berri den liberalizazioa dela-eta, hainbat neurri hartu berri dituztela euren mesederako. Hala, elkarteak eta Infotechnaliak egin duten akordio bati esker, gura duten bazkideek elektrizitate hornitzailea kontratatzeko aholkularitza doan izango dute. Interesatuek azaroa aurretik egin beharko dute horren eskaera.



Oñatiko terraza baten zerbitzari bat lanean eta hainbat bezero jarrita, tragoxka hartzen. JOSETXO ARANTZABAL

Koldo Lasa > Gipuzkoako Ostalaritza elkarteko idazkaria

## "Turistek nahi dutena daukate ibarrean, mendia bertan"

I.B. > BERGARA

**Koldo Lasak urte asko darama izen bereko jatetxea gidatzen Bergaran. Hala, Debagoieneko ostalaritza ondo baino hobeto ezagutzen du. Horrez gain, Gipuzkoako Ostalarien Elkarteko idazkari ere bada.**

**Zer deritzozu elkartea kezkak eta ardurak jasotzera eskualdetara hurbildu izana?**

Ezinbestekoa zela uste dut, eta hemendik aurrera ohikoa bihurtuko den praktika izango da.

**Zein da ibarreko bazkideen ardura nagusia?**

Donostiara joaten diren turistek jakitea gure eskualdean ikusteko asko dagoela. Horretarako, Aldundiari eta beste erakundeei eskatzen diegu A-8an eta AP-1en seinaleztapen aproposa egiteko. Gainera, turista askok plan alternatiboak izatea nahi izaten dute, eguraldi txarra bada ere.

**Eta zer da Debagoienak eskaintzeko daukana?**

Gauza ugari. Arrikrutz, Arantzazu, Bergarako Kristo Santua, Gatz Museoa, landetxeak... Eta, horrez guztiaz gain, turistek nahi dutena: lasaitasuna, berdeguneak eta mendia bertan.

**Eta ezin ahaztu, Gastronomia jardunaldiak, ezta?**

Hala da. Orain ortuko jakiekin gabiltza, eta iraila-urrian perretxiko eta bildotsa eskainiko ditugu. Eta Oñatin, jaietan, pintxo eta ardo eskaintza.



GOIENKARIA

**ESKORIATZA** > INGURUMENA

# Eskoriatzako Udala haserre, AHTko lanen isurketengatik

## Udalak salatu du Mazmelako tuneletik ateratako hauts eta urak ez dituztela araztegian tratatzen; eta erreka babestutako eremua dela


Deba ibaia Eskoriatzako Santa Marina plazatik behera. IRATI GOITIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Herenegun, zapatua, Eskoriatza erdigunean ikus zitekeen errekako ura beltz zetorrela. Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek jakinarazi zigun horren arrazoia AHTko lanetan egiten dituzten isurketak direla, eta Udala oso haserre dagoela.

Hala, alkateak azpimarratu zuen martxotik askotan erreka ur zikinarekin jaisten dela. Are gehiago, gaineratu zuen Mazmelan tunel bat zulatzen dabiltzala eta hortik irtendako hautsak eta hondakinek eragiten dutela hori.

**HASIERAN, BAIMEN BARIK**

Lasagabasterren esanetan, Mazmelan lanak egiten dabilen enpresak maiatzean lortu zuen Jaurlaritzako Ur departamentuko baimena, "isurketak hasi eta ia bi hilabetera". Horrez gain, alkateak azpimarratu zuen, baimen horrek baldintza zehatz batzuk dituela: "Garrantzitsuena da errekara bota aurretik, hauts, hondakin eta ur zikin hori araztegi batean tratatu behar dituztela, baina argi dago askotan ez dutela hala egiten".

**BABESTUTAKO EREMUA**

Alkateak azaldu du hainbat salaketa egin dizkietela AHTko lanak egiten dabiltzanei, uren zainketaz arduratzen diren arduradunei eta Jaurlaritzako Uren departamentuari. "Horiek egin ostean, hogei bat egunetan erreka garbi samar egon da, baina azken bi asteotan, batez ere asteburuetan, berriro zikin dator".

Lasagabasterrek jakinarazi du Udalak oraingoan Jaurlaritzaren eta Espainiako Sustapen Ministerioaren aurrean salaketak egin dituela, eta ez dutela isurketa gehiago onartuko.

Modu berean, alkateak azpimarratu du Deba ibaiaren goiko aldea dela garbi dagoen zati bakarra: "Horregatik, erakunde askok babesten dute eta interes handiko gune moduan izendatuta dago. Hori guztia kontuan hartuta, lotsagarria deritzogu lan garbiak egiten dabiltzala esan, eta bitartean halakoak egitea".

**EZBEHARRA** > SUTEA

# Aretxabaletako txatartegi batean sutea, domekan

## Txatartegi kanpoan zegoen materiala erre zen bakarrik, baina sua ikusgarria izan zen

**I.B.** > ARETXABALETA
Atzo goizaldean sute bat piztu zen Aretxabaletako Etxebarri auzoan, Bainuetxe inguruko txatartegi baten kanpoan.

Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, ezagutzen ez diren arrazoiengatik txatartegiaren kanpoan dagoen lurzoruan sute bat piztu zen. Hala, 01:50 aldera aretxabaletar batek suaren berri eman zien larrialdietako zerbitzuei.

Hala, suhiltzaileak Bainuetxera joan zirenean ohartu ziren txatartegi kanpoan pilatutako materiala erretzen ari zela eta ke handia sortzeaz gain, eztanda txikiak ere entzuten zirela.

**ORDU BAT SUA ITZALTZEN**

Suhiltzaileek ordubete pasa behar izan zuten sua guztiz itzali artean. Azkenean, baina, ez zen inolako zauriturik izan; eta suak, kanpoan zegoen txatarra, plastikoa eta egurra erre zituen. Are gehiago, ez zen inongo bizilagunik mugitzeko premiarik izan.

**POLITIKA** > LEGEZ KANPORATZEA

# Abokatutzak, Arrasateko Udalaren kontra berriro

## Arrasateko Udaleko osoko bilkurak Talde Mixtoa sortu izana salatu dute berriro

**I.B.** > ARRASATE
Espainiako Estatuko Abokatutzak berriro aurkeztu du helegitea Arrasateko Udalaren kontra. Abokatutzaren esanetan, "Arrasateko Udala EAE-ANVren legez kanporatzea saihesten saiatu da, Udalean Talde Mixtoa sortu zuelako".

Espainiako Estatuko Abokatutzak aurretik hainbat saiakera egin ditu 2008ko irailaren 18an Arrasateko Udaleko osoko bilkurak Talde Mixtoa sortzeko hartutako erabakiaren kontra. Are gehiago, beste udal batzuen kontra ere neurriak hartu gura ditu.





IKER BARANDIARAN

## Bubisherrek eta Bergarako Udalak ongietorria egin zieten, Saharatik etorri diren umeei

Azken urteotako ohiturari jarraituta, Debagoieneko hainbat herritara Saharako umeak etorri dira uda pasatzera. Horren harira, egubakoitzean Bergaran ongietorri ekitaldia egin zuten Bubisher elkarteak eta Udalak. Bergara, Antzuola eta Elgetara bost ume etorri dira Saharatik: Ali, Nasra, Malluba, Nasra eta Nora. Guztiek ezin izan zuten ekitaldian izan, ezta gonbidatutako Txernobilgo umeek ere ez, baina ekimen polita izan zen. Are gehiago, antolatzaileek pentsatu zuten onena zela, inongo ekitaldi formalik egin barik, umeendako jokoak antolatzea; eta hala egin zuten.

Hala, Jardun elkarteko begiraleek hainbat tailer jarri zituzten, eta Saharako eta Bergarako txikienek batera jolastu eta elkar ezagutzeko aukera izan zuten.

Aipatutako neska-mutikoak joan den zapatuan heldu ziren Euskal Herrira eta iraila hasieran etxera itzuliko dira.



Eroski eta Portaloiko kioskoan ez ezik, Elkar liburu dendan ere eros daitezke liburuak. IKER BARANDIARAN

**IRAKURZALETASUNA** > EGITASMOAK ARRASATEN ETA BERGARAN

# Egubakoitzean agurtuko da 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina

Antolatzaileak pozik daude, euskarazko irakurketan "aurrerapausua" eman delako; 90 deskontu txartela baino gehiago banatu dira

**MIRIAN BITERI**> ARRASATE

Azken hilabeteotan Arrasaten euskarazko irakurketa bultzatzeko abian jarritako *Irakurri, gozatu eta oparitu* izeneko egitasmoa amaitzera doa. Egubakoitza, hilak 24, da azken eguna Santa Marina eta Kulturateko liburutegietan euskarazko liburuak irakurtzeagatik eskuratutako deskontu bonuak gastatzeko. Hortik aurrera ezin izango dira trukatu.

Kanpainan Arrasateko AED eta Txatxilipurdi euskara elkarteek, Udal Bibliotekak eta Elkar, Eroski eta Portaloiko kioskoak parte hartu dute. Antolatzaileak pozik daude horrek izandako harrerarekin. Txatxilipurdiko Eneko Barberenak esan digu lehen urtea izateko, "pozik" daudela harrerarekin: "Euskarazko irakurketan aurrerapausoa ematea lortu dugu". Aurreratu digu, horren harira, 90 deskontu bonutik gora banatu dituztela.

Oraindik, esan bezala, bonu horiek lortzeko aukera dago. Liburutegian irakurritako euskarazko liburua itzultzerakoan, fitxa bete eta liburuzainak bonua ematen dio irakurleari. Herriko liburu dendetan liburuak erostean hori aurkeztuko du. Euskara elkarteko kide bada, %50eko deskontua izango du bezeroak; bestela, %25ekoa.

**BIBLIOPISZINA, BERGARAN**

Arrasatekoa ez da irakurletasuna bultzatzeko antolatu duten egitasmo bakarra. Aurten, bigarren urtez, Bibliopiszina egitasmoa jarri dute martxan Bergaran. Herriko liburutegiaren ekimenez, uda osoan zehar liburutegia igerilekuan bertan egongo da, 15:00etatik 18:00etara.

etxeko leihotik



**Iker Barandiaran** > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Kontraesanak ez dira erraz desagertarazten

Ni bizi naizen etxeko leihotik behin baino gehiagotan ikusten ditut presoen aldeko argazkiak. Batzuek diote laster ez ditugula ikusiko, baina ez dut hori sinisten. Adibideak adibide, beste alor batzuetan konponbidea drogak desagertaraztea dela diotenei moduan begiratzen diet nik argazki horiek ikusiko ez ditugula diotenei; behiek trenari moduan. Gauzak desagertaraztea ez da hain erraza, zorionez edo zoritxarrez.

Luzaroan aritu ziren alderdi konstituzionalisten bozeramaileak Ibarretxe salatzen; salaketa ohikoenetako bat zen EAEko herritarrei galdeketek eta burujabetasunak ez zitutztela kezkatzen; eta ez zuela merezi zeregin horietan denborarik ezta dirurik galtzea. Konstituzionalisten esanetan, bestelako ardurak, ez politikoak, ditugu euskaldunok: krisia, egunerokotasuna eta beste.

**"Batzuek uste dute drogak desagertaraztea dela konponbidea"**

Orain, berriz, Ibarretxeri salaketa horiek egin zizkioten politikari berberek, Patxi Lopezek eta Rodolfo Aresek buruan, besteak beste, zarata eta diru ugari gastatzen dihardute EAEko kaleetatik preso politikoen gaineko arrasto guztiak kendu nahian. Eta horrek, argazki horiek kendu behar izate horrek, hainbeste kezkatzen al ditu/gaitu EAEko herritarrok?

Hori guztia kontraesana ez bada, galdetu diezaiotela trenari begira dagoen behiari.

**> Ikusmena**

**Batzuek uste dute ikusten ez dugunak ez duela minik egiten. Edozeinek daki hori ez dela egia eta ikusi ez arren, mina egiten badu, mina egiten jarraituko duela. Bestelako arrazoiak daude hor atzean, ikusi edo ez ikusi gura**

**> Konponbidea**

**Euren argazkiak bistatik kendu arren, presoek kartzeletan jarraituko dute, eta hori ez dute askok ahaztuko. Hortaz, bila dezatela ganorazko konponbide bat guztien artean, etengabe *petatxoak* jartzen ibili beharrean**

**INGURUMENA** > ZABORRA

# Garbiguneak astean bitan egongo dira zabalik abuztuan

Arrasatekoa astelehen eta eguaztenetan zabalduko dute; Bergarakoa, martitzen eta egubakoitzetan; Oñatikoa, eguazten eta zapatuetan

**M.B.** > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak egunotan jakinarazi du Arrasaten, Bergaran eta Oñatin dituen garbiguneek ordutegi berezia izango dutela abuztuan. Astean bi egunez baino ez dira zabalik egongo horiek. Gainera, goizeko ordutegia izango dute: 09:00etatik 13:30era, hain zuzen.

Arrasaten, Ibarretakoak astelehenetan eta eguenetan izango ditu ateak zabalik; Bergaran, Angiozarko errepidean dagoen San Kristobalgoa, martitzenetan eta egubakoitzetan; eta Oñatiko Urrutxuko garbigunea, azkenik, eguazten eta zapatuetan. Domekan eta jaiegunetan, berriz, itxita egongo dira.

**ORDUTEGIAK ERRESPETATU**

Horrekin batera, Mankomunitateak debagoiendarrei eskatu die ezarritako ordutegiak errespeta ditzatela eta horiek itxita topatuz gero, garbiguneko kanpoaldean hondakinik ez uzteko, joan den urtean arazoak egon zirenta horren harira.

**AZPIEGITURAK** > AHT

# AHTren aurkako kanpaldia, egubakoitzetik Izurtzan

Ekimenen artean, abuztuaren 1ean Durangon egingo den manifestazioa dago

**M.B.** > BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak antolatutako AHTren aurkako XIV. kanpaldiari asteon emango diote hasiera Durangaldean; Izurtzan, hain zuzen. Egubakoitzetik abuztuaren 2ra arte iraungo du ekimen horrek.

Besteak beste, hitzaldiak, tailerrak, mendi martxak, protesta ekintzak eta umeendako jokoak antolatu dituzte. Azpimarratzekoa da abuztuaren 1ean, 12:00etan, Durangon egingo den manifestazioa. Antolatzaileen esanetan, "Espainiako Sustapen Ministerioak obrak Gasteiz-Bilbo ibilbide osoan hedatu eta inposatzeko hartu duen erabaki larriari erantzun indartsua eman nahi dio horrek". Durangoko Andra Mari plazatik abiatuta, AHTren eraikuntza lanek Iurretako Orozketa auzoan hondatutako eremura joko du.

EUSKARA > ZIURTAGIRIA

# Euskarazko Bikain urrezko ziurtagiria lortu dute MUko bi fakultatek

Enpresa Zientzien Fakultateak eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Bikain ziurtagiria lortu dute bere maila gorenean, urrezko mailan

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak iaz sortu zuen Bikain euskarazko kalitateko ziurtagiria Debagoienera etorriko da berriz, bere bigarren ekitaldi honetan; izan ere, dagoeneko erabaki du Eusko Jaurlaritzak Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateari eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari ziurtagiri hori ematea. Aipatzekoa da maila gorena, urrezko agiria, eman dietela bi fakultateoi; izan ere, hiru maila daude, urrezkoa, zilarrezkoa eta beltza.

Agirien banaketa ekitaldia abenduan edo urtarrilean izango da.

**EUSKARA, EGUNEROKOA**

Mondragon Unibertsitateko bi fakultate horiek urrezko Bikain ziurtagiria lortu dute "euskara kudeatzeko duten eragatik"; horixe da Bikain agiriak aitortzen duen meritua, hain zuzen ere, hiru maila desberdinetan. "Nahiz eta fakultateetan hiru hizkuntzatan ikasten den –euskara, gaztelania eta ingelesa–, euskara da euren egunerokotasunean darabilten hizkuntza", dio Mondragon Unibertsitateak. Ziurtagiria lortzeko, ebaluazio bat egiten da, eta lau ardatz aztertzen dira: erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa; kanpo harremanak; barne harremanak; eta hizkuntza kudeaketa.

Iaz, bere lehenengo ekitaldian, urrezko Bikain agiria lortu zuten Debagoieneko Goiena, Emun eta Elayk; eta zilarrezkoa, Fagor Etxetresnek eta Eroskik. Horrez gain, Goienak ziurtagiria sortzeko fasean parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzarekin.



Iaz Bikain ziurtagiria lortu zuten Debagoieneko ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin, azaroan egindako ekitaldian. ARTXIBOA



Mari Karmen Gallastegi. GOIENKARIA

IKERKUNTZA

## Gallastegi ordezkatu dute Ikerbasquen

Ikerkuntza zientifiko arloko fundazioko zuzendaria izan da bergararra

GOIENKARIA > BERGARA

Mari Karmen Gallastegi ekonomialari bergararra Fernando Cossiok ordezkatu du Ikerbasque fundazioko zuzendari tekniko moduan. Euskadiko Ikerkuntza Zientifikorako fundazioa da Ikerbasque, eta 2007. urteko ekainean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak. Bere ibilbidean, lehen mailako 80 ikerlari baino gehiagoren elkarlana lortu du.

Fernando Cossio EHUko Kimika Organiko katedraduna da. Isabel Zelaak, Hezkuntza sailburuak, haren izendapena jakinarazi zuen uztail hasieran, patronatuko beste postuekin batera: Pedro Luis Arias presidenteorde, eta Rafael Aviles, Alberto Lopez, Carlos Matute eta Gonzalo Muga, patronatuko kide berri.

EKONOMIA > ENPRESAK

## Fundiciones Eskoriatzak, lehen Fundiciones Leniz, ISO 9001:2008 agiria berritu du

Fundiciones Leniz iaz itxi zuten, eta hango langile batzuek enpresa berria sortu zuten; lorpen honekin oso pozik daude

L.K. > ESKORIATZA

Enpresa dezente itxi edo lan arazo larriekin dabiltzan honetan, itxaropena sortzen duten albisteak ere badaude. Horietako bateko protagonista da Fundiciones Eskoriatza enpresa, egunotan ISO 9001:2008 kalitate agiria berritzea lortu duena, hainbat ebaluazio gainditu ondoren. Kasua bereziztu egiten duena da enpresa hori iaz itxi zen Fundiciones Lenizeko langileek sortutakoa dela; enpresa hark Eskoriatzan zuen lantegia hartu zuten eta berriz martxan jarri zuten negozioa, euren enpresa sortuaz. Fundiciones Lenizen 30 langiletik gora zeuden, eta horietatik 13 bat dabiltza orain Fundiciones Eskoriatzan. Lehengo enpresak zuen ISO agiria berritzea lortu dute orain.

**"IA-IA ZEROTIK HASI GINEN"**

Urtarrilean sortu zen enpresa honendako, "oso pozgarria" eta "lorpen handia" izan da agiria berritzea: "Aurreko azpiegiturak langile gehiagorendako prestatuta zeuden, eta dena berrantolatu behar izan da; ez ginen zerotik hasi, baina ia-ia; lehen zeuden bezeroei eustea lortu dugu. Orain, ISO agiri hau berritu dugu eta oso albiste ona da guretako", diosku Fundiciones Eskoriatzako gerenteak, Eduardo Perezek.

Fundiciones Leniz enpresa iaz itxi zuten, eta Fundiciones Eskoriatzak urtarrilean hasi zuen bere ibilbidea, Eskoriatzako Aingeru Guardako lantegian. Hasieran, lehengo langile gutxi batzuk zebiltzan, eta gero, lantalde hartako gehiagok bat egin zuten proiektuarekin.

EKONOMIA > BEHATOKIA

## Marka zuriei esker, %38 aurrez daiteke

L.K. > ARRASATE

Jatekoetan, Euskal Herriak jarraitzen du Estatuko lekurik garestiena izaten; baina drogerian, merkeenetarikoa da; horiek dira Espainiako Industria Ministerioaren Prezio Behatokiaren (*www.observatorioprecios.es*) 2009ko bigarren hiruhilabeteko txostenetik atera daitezkeen ondorio batzuk.

Behatokiak bi erosketa-otzararen arteko konparaketa egiten du: bat, markako jateko produktuek osatuta, eta bestea, banatzailearen marka edo marka zuria delako produktuekin. Bada, bigarren hori aukeratuta, gutxienez %27 aurrezten da lehenengoaren aldean; eta gehienez, %38.

**DROGERIAN, MERKEENAK**

Behatokiak dioenez, prezioak jaitsi egin dira: gutxieneko lekuan, %1, eta gehienekoan, %7,5. Hala ere, Donostia, Bilbo eta Iruñea daude Estatuko bost hiri garestienen artean elikagaien erosketa-otzara osatzerakoan; eta Eroskik jarraitzen du banatzaile handi garestienetako bat izaten, nahiz eta batezbesteko prezio jaitsiera handienetakoa (%6,6) izan duten Eroski Center supermerkatuek.

Drogerian, aldiz, Euskal Herrian daude Estatuko prezioirik baxuenak, eta asko jaitsi dira: Eroskik %8,5, eta Eroski Centerrek %17 jaitsi ditu.

auzorik auzo

**GARAGARTZA** > Arrasateko auzoa da Garagartza. Batez ere, ezaguna da bertan daudelako Lezetxikiko kobak. Auzoaren egoera egonkorra da azkeneko urteotan; 40 baserri inguru daude eta 300 biztanle dira, gutxi gora behera.



Ramon Lopez de Aretxaga Gargartzako plazan. Atzealdean, Udalatx. A.EZKIBEL

**Ramon Lopez de Aretxaga** > Garagartzako auzo-alkate ohia

# "Autoak azkarregi pasatzen dira Elizondotik, eta ondorioz geltokia oso arriskutsua da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Bi urtez Garagartzako auzo-alkate izan ondoren, joan den uztailaren 11n utzi zuen Ramon Lopez de Aretxagak auzo-alkate kargua. Orain, Arantzazu Zubizarreta da alkate berria, eta laguntzailea, ostera, Jokin Gartzia.**

**Udalaren asmoa auzoaren erdialdean etxeak egitea da, baina zuek ez zaudete ados.**

Orain dela 10 urte hasi zen Udala PERI delako planarekin. Horren arabera, auzoa nola antolatu erabakiko da. Asmoa da auzoaren erdialdean etxeak egitea, baina gu ez gaude ados horrekin.

Gainera, ez dauka zentzurik erdialdean etxeak egin eta, ondorioz, bizilagunei ortuak kentzea; eta, bestalde, ortu ekologikoak egin gura izatea. Ortu ekologikoetara etorriko direnen autoak non sartuko dituzte?

**Auzotarrengan kezka sortzen duen beste gai bat AHT da?**

Bai, gai korapilatsua da. Bere garaian, aurkeztu genituen aurkeztu beharreko alegazioak. Obra egiten dabiltzan bitartean lanen ondorioak jasan beharko ditugu: hautsa, zarata... Bestalde, ez dakigu auzoa zela geratuko den behin lanak bukatutakoan.

**Eta zer gertatzen da Fagorrek egin dituen aparkalekuekin?**

Fagorrek aparkaleku batzuk egin ditu –ez dakit lurrak norenak diren–. Gura dutena da langileek Garagartzatik izatea irteera; hortaz, auzotarrak atzean, euren ondoren, geratuko ginateke. Guk errekurtsoa jarri genuen lan horien aurka eta justiziak arrazoia eman digu. Orain, gelditu dago.

**Elizondoko autobus geltokiak kezka sortu du auzoan?**

Bai, Elizondon autobus geltokia dago. Baina gertatzen dena da errepidean autoak oso azkar ibiltzen direla. Hortaz, oso arriskutsua da auzotarrentzat horra joatea autobusa hartzera. Zerbait gertatu aurretik hori konpontzea eskatzen dugu.

**Garagartzan San Migel jaiak ospatzen dituzue. Zerbait berezia egiten duzue?**

Ohitura da San Migel jaietan buzkantzak tomatearekin jartzea egubakoitzean eta zapatuan. Bestalde, umeen jokoak, meza nagusia, musika... izaten dugu.

Esan behar da auzotarrok Santa Ageda eguna ospatzen dugula, eta baita Gabonak ere. Olentzero jartzen dugu auzoan. Bizi asko duen auzoa da.

**Hainbat ibilbide interesgarri eskaintzen ditu auzoak. Zeintzuk dira?**

Udalatxera joateko aukera dago, eta baita Besaidera ere. Bestalde, Garagartza eta Arrazola arteko bidea auzotik pasatzen da. Garai batean auzotarrek erabiltzen zuten bide hori Bizkaiara joateko kipularen landareak saltzera. Buzkantzak, horregatik egiten ditugu jaietan.

Gainera, Tellamendirako bidea ere auzotik doa. Tellamendira urtero egiten den igoera aprobetxatuz, orain dela 15 egun auzo-bazkaria egin genuen.

LEZETXIKI

## Neandertalak baino lehenagoko gizakiak bizi ziren Lezetxikin

Garagartzan daude Arrasateko koba ospetsuenak. Bertan aurkitu zuen 1.965. urtean Jose Migel Barandiaranek Euskal Herriko giza aztarnarik zaharrena. Gerora, Arantzadi elkarteak hainbat aztarna aurkitu ditu; aztarna horien arabera, Neandertalak baino lehenagoko gizakiak bizi ziren Garagartzako koban. Kantauri isurialdean dagoen aztarnategi garrantzitsuena dela esaten dute adituek.

Aurtengo ikerketa amaitu berri dute; hiru astez, 18 boluntariok jardun dute indusketa lanetan, eta iaz aurkitutako hiru hartzen hezurdurak atera dituzte.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

## Harpidedunen txokoa

### Uztaileko irabazleak

Sariak irabazteko
**HARPIDETU!**
**Tel.: 943 08 10 50**
***harpidetza@goiena.com***
**Kuota: 20 euro**

**ATXAGAREN LIBURUA** PAMIELA

Arantxa Ugarte Bolibar
(Aramaio)

Floren Arana Barandiaran
(Arrasate)

Edurne Barrutia Urreta
(Aretxabaleta)

**RIP TALDEAREN DVD-A** Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Jasone Uribesalgo Zugasti
(Aretxabaleta)

**UMEENTZAKO LIBURUAK** PAMIELA

Agustin Bolinaga Zubia
(Oñati)

**MUNDUMIRAKO KAMISETA** Mundumira

Maite Beitia Abarrategi
(Aramaio)

## SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA

### Jose Angel Oianguren Arana (Aretxabaleta)



**BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK**

J.L Abuinen eskutik
**J.L ABUIN / PUY BIDEBURU**
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14 | S. Josepe, 10 943 77 01 33 | Kiroldegia 943 77 16 77

Arianne Kareaga (Bergara, 1979) Lanki Ikertegiko ikerlaria da eta 'Diskurtso kooperatiboak langile-kolektiboan. Kooperatibismoari buruzko sentipenak Fagor Arrasaten' izeneko tesia aurkeztu zuen hilaren 8an. Fagor Arrasateko langileekin egin du lan, haien sentipenak ezagutzeko asmoz. Metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili dituzte.

**Arianne Kareaga** > Huheziko irakaslea

# "Gai batzuetan kritikoagoak dira, baina kooperatibista sentitzen dira gazteak"

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

**Kooperatibismoaz Fagor Arrasateko langileek dituzten sentipenak jakiteko egin dugu berba Arianne Kareagarekin. Esan digu gustura dagoela 2005. urteko urtarrilean hasitako tesiarekin.**

**Zergatik aukeratu duzu gai hori?**

Lanki Ikertegian lan egiten dut eta bertako kideon kezka intelektualak dira Arrasateko kooperatiba esperientziak bizi dituen aldaketak eta etorkizunari begirako erronkak. Kooperatibismoa bidegurutzean dagoela aipatu izan da askotan, joera teknokratikoa dagoela eta arlo soziala k desgastea bizi duela. Horren aurrean kooperatiba bateko kolektiboa nola sentitzen den aztertu nahi izan genuen.

**Ze helburu zenituen tesiarekin hasi zinenean?**

Hiru izan dira planteatu ditugun helburuak: alde batetik, kooperatiba eta kooperatibismoari buruz dauden pertzepzio eta diskurtsoak identifikatu eta aztertzea. Egungo kooperatibistek kooperatibismoa nola ikusten duten jakin nahi izan dugu, eta formulazio horretan zenbat ikuspegi desberdin multzoka ditzakegun; beste alde batetik, belaunaldi ezberdinen diskurtsoen arteko konparaketa egitea. Belaunaldiaren arabera, kooperatibismoari buruzko diskurtso eta sentipenak modu esanguratsuan aldatzen diren jakin nahi izan dugu.

Azkenik, Fagor Taldearen gainean duten iritzia zein den aztertu nahi izan dugu; besteak beste, langileek nola bizi duten.

**Langile kolektiboa hartu duzu irizpide moduan. Zergatik?**

Baztertu egin dugu Arrasateko Esperientziaren egungo egitura –Mondragon Taldea– osatzen duten kooperatiba desberdinetako laginekin jokatzeko aukera. Lan-kolektibo batean zentratu nahi izan dugu gure ikerketa.

Kooperatiba bat unitate sozial oso bat da, ibilbide jakin bat egin duena eta esperientzia multzo bat pilatu duena. Bertan, esperientzia, ardura, postu, adin eta kualifikazio desberdineko pertsonak biltzen dira, helburu bateratua duen unitate heterogeneoa osatuz.

Unitate horietako batean egin nahi izan dugu kooperatibismoaren diskurtsoen argazkia.



Arianne Kareaga, Huheziko klaustroan. MIRIAN BITERI

**Eta zergatik, Fagor Arrasatekoak?**

Kooperatiba historikoa dugu Fagor Arrasate, MCCren *ama*. Arrasateko Esperientzian sortutako bigarren enpresa da eta erdigune geografiko eta soziologikoan kokatzen da; alegia, esperientziak sortu duen kulturaren muinean. Unitate egokia, beraz, barruan gertatzen ari diren aldaketak behatzeko.

Esku-langile zuzenen eta zeharkako langileen azpi-kolektibo handi bana ditu bere barruan. Kooperatibista historiko edo zaharren eta belaunaldi gazteen ordezkaritza aurki dezakegu langileen artean.

**Ze lan egin duzue eurekin?**

Metodologia aldetik, teknika kualitatibo zein kuantitatiboak erabili ditugu. Nagusiki hiru lan egin ditugu: alde batetik, *lehen hurbilpena* deitu dugun ariketan kooperatibismoari buruzko hiru

KOOPERATIBA BAKARRA

**"Mondragon Taldea osotasunean hartu barik kooperatiba bakar bateko langileengan zentratu gara"**

GAZTEAK

**"Gazteek etorkizuneko kooperatibismoaz duten iritzia jakin nahi izan dugu"**

DESBERDINA

**"Arrasateko kooperatiba oso berezia da zentzu askotan"**

diskurtso identifikatu eta aztertu ditugu. Lan hori egiteko, Fagor Arrasaten 2005-2006 ikasturtean emandako formazio saio batzuen ostean egindako eztabaida talde batzuetan bildutako materiala erabili dugu.

Beste alde batetik, diskurtso analisiaren bidez apropos sortutako eztabaida taldeetan kooperatiba eta kooperatibismoari buruzko gaiak aztertu ditugu.

Azkenik, azterketa kuantitatiboaren bidez kualitatiboan aztertutako elementuak neurtu nahi izan ditugu.

**Zeintzuk dira atera dituzun ondorio nabarmenenak?**

Diskurtsoei dagokienez, hiru diskurtso identifikatu eta aztertu ditugu. Etsipenaren diskurtsoak eszeptizismotik bizi du kooperatibismoa. Garai batean zentzua izan zuena gaur egun ez da baliagarria. Etsita daude. XXI. mendeko mundu globalizatu honetan merkatuak agintzen du eta kanpo faktoreek eragiten gaitutze. Horien iritziz, baldintzak onartu eta arlo enpresarialari eustea da kooperatibismoaren egiteko nagusia.

Haserretik abiatzen den diskurtsoak mesfidantza du sakonean. Ez dira kooperatiba gidatzen dutenekin fidatzen, eta ez dute ikusten eurengan inolako eragin ahalmenik. Teoriatik praktikara dagoen tarte zabala ez dute atsegin, eta hori da salatzen dutena. Azkenik, itxaropenaren diskurtsoan kokatzen direnek indarra eta eragiteko ahalmena pertsonarengan daudela uste dute. Kooperatibismoa biziberritzeko gogoa eta premia ikusten dute.

**Zeintzuk dira kooperatibismoa elika dezaketen gaur egungo zentzu elementuak?**

Motibazio kooperatiboa elikatzeko zentzu osagai garrantzitsu moduan agertu zaizkigu ondorengo hiru motibazio sozial hauek: enplegua sortzea, ingurunean ekarpena egitea (eraldaketa soziala) eta euskarari lan munduan lekua egitea. Hirurek herrigintza-motibazio bat osatzen dute, herrigintzaren hiru osagai direta; hain zuzen ere: pertsona gehiagorendako enplegua sortzea, ingurune sozialari ekarpenak egitea eta hizkuntzaren normalizazioan parte hartzea. Horiek izango lirateke egungo kooperatibismoaren etorkizunerako abiapuntuak.

**Fagor Taldeari buruzko iritziak jaso dituzue.**

Fagor Taldeak balorazio ona du langile-kolektiboan. Fagor Taldeko kide izatea garrantzitsua da Fagor Arrasateko kolektiboko gehienendako. Taldeak berezko dituen ezaugarriak mantendu eta indartzearen alde agertu dira gehienak. Aldiz, Mondragon Taldearekiko atxikimendua hotzagoa da. Badirudi gertutasunak, bailara-zentzuak eta kooperatiba batzuen arteko lotura-historia luzeak pizten duela atxikimendua. Hortik gorakoak ez du berotasun minimorik lortzen.

**Belaunaldi berriei dagokienez, zer aurkitu duzu?**

Motibazio kooperatiboaren erabateko etena gezurtatu egin digute. Baikortasuna eta itxaropena osagai esanguratsuak dira multzo honetan gazteen artean. Gai batzuetan kritikoagoak dira, baina kooperatibista sentitzen dira gehienak.


Kutxa Inbertsio-Irtenbideak
Ez duzulako galtzea jasaten.
EUROLIDER
GORDAILU BERRIA
IRABAZTEKO ASKO, GALTZEKO DEUS EZ.
%100
BERMATUTA
Errentagarritasun handiko aukerak eta zure kapitalaren %100 bermatuta dituen gordailua. Etorri kutxara eta galde iezaguzu.
Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 090203 espediente zk-duna.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Badirudi Mundumira jaialdiaren etorkizuna zalantzan dagoela. Zer iruditzen zaizu?



**Eleder Altube**
Langilea
Oñati

Egia esan, ez ditut aurreko edizioak jarraitu; eta, ez dakit zenbat kostatzen den horrelako zerbait antolatzea. Hala ere, horrelako jaialdiak ondo daude beste herrialde batzuk ezagutzeko bidea ematen dutelako.



**Nagore Billar**
Langilea
Oñati

Nik uste dut horrelako jaialdiak mantendu egin beharko liratekeela. Gainera, jende aldetik arrakastatsuak izan dira. Herriari bizitasuna ematen diote, eta kultura ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen dute.



**Monika Bastida**
Ikaslea
Oñati

Uste dut pena bat dela horrelako jaialdiak kentzea. Orain arteko edizioetan egon izan naiz, eta uste dut interesgarriak izan direla. Gainera, kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ematen dute.



**Gaizka Lizarralde**
Langilea
Oñati

Nire ustez jarraitu egin beharko zuten Mundumira jaialdia antolatzen. Ondo dago beste kultura batzuk ezagutzeko aukera dagoelako. Antolatzea garestia baldin bada, beste modu batera antolatu beharko lukete.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ESKORIATZA

**> Zergatik kolokan Mundumira?**

Mundumira jaialdiaren etorkizuna kolokan dagoela *Goienkaria*-n irakurtzean, zur eta lur geratu dela diosku Eskoriatzako gizon batek, e-postaz. Aurtengo ekitaldia, Eskoriatzan egindakoa, guztiz arrakastatsua gertatu dela dio eta bailara ezagutzera emateko eta kanpotik jendea erakartzeko aurreko ekitaldiak ere baliagarriak izan direla uste du. Hori dela eta, Mankomunitateari jaialdiari eusteko ahalegin berezia egiteko eskaera luzatu nahi dio.

DEBAGOIENA

**> Saharako eta Txernobilgo umeak hartu dituztenei, zorionak**

Arrasateko emakume baten deia jaso genuen zapatu goizean. Saharatik eta Txernobildik etorritako umeak jasotzen dituzten guztiak zoriondu nahi ditu. Haien eskuzabaltasuna goraipatu nahi du, eta animatu jendea horrelako ekintza solidarioetan parte hartzera.

OÑATI

**> Kultura Etxea itxita, uztaileko zapatuetan**

Oñatiko gizon batek deitu zigun zapatuan. Oñatiko kultur etxera joan zela zapatuan, egunkariak kontsultatzeko asmoz, eta kultura etxea itxita zegoela. Antza denez, uztaileko zapatuetan itxi egiten dute kultura etxea eta ez zaio logikoa iruditzen. Erabiltzaileengan ardura gehiago erakustea eskatu nahi dio gizon honek Udalari.

## usteak uste

**Txomin Madina**

# Oporretan nora zoaz?

Abuztua gain-gainean dugu, eta asteotan ohikoa izaten da elkarri aukeratutako opor-lekuaren inguruan galdetzea. Krisi ekonomikoak, baina, aldatu egin al ditu inbidia eragiten digun edo besteei inbidia eragiteko balio digun galdera horren erantzunak?

Momentuz, neure inguruan entzun eta ikusitakoaren arabera, ez dirudi aurten krisiak larregi ito gaituenik. Tailandia, Korsika edo Hawaiira doaz batzuk, beste batzuk gertuago geratuko dira, Conilen, Galizian edo Piriniotan. Gutxiengoa da inora joan gabe etxean geratuko direnen kopurua. Edo hori da behintzat erantzunetatik atera daitekeen ondorioa. Baina egongo al da Etxebesterik gure artean?

*Dagoenean bonbon, ez dagoenean hor konpon* dio euskal esaera zaharrak. Eta badirudi, ondo ikasia dugula esaera hori.

## zorroztailea



**Elena Laka**

# Nireaaaa da

"Aldaketak talde eta batzordeetan. EB eta EAren krisia Donostiako Udalera iritsi zen osaketaren berrantolaketara, baina oinarrizkoa ez da aldatuko: gobernu/oposizioaren arteko erlazioa (...). Alkateak esan zuen Alternatiba Eraikitzen-eko zinegotzi biak ez direla transfugak, eta gobernuko kide izaten jarraituko dutela".
El Diario Vasco 09/07/18




Xabi eta Ane Gipuzkoan bizi dira. Euskaldun eta aurrerakoitzat dute beraien burua. Azkeneko udal eta foru hauteskundeetan, Xabik, ezker klasikoaren aldekoak, Ezker Batuari eman zion botua. Anek, ezkerreruntz bai, baina ez hainbeste, abertzaleagoa-edo, Eusko Alkartasunari eman zion botua. Hauteskundeak izan zirenetik bi urte pasata, EBko eta EAko aulkiak betetzen zituzten zinegotzi eta batzarkideek alderdi bana sortu dute, eta orain bi alderdietatik ateratakoek beste bi alderdi osatu dituzte. Anek eta Xabik, euren botuen norakoez eta erabilgarritasunaz kezkatuta, Kontsumitzailearen Defentsarako Bulegora jo dute euren botuaren ondorioak jaso duen trukaketa salatzera. Handik Kargundunen Jakakeria Kudeatzeko Bulegora (KJKB) bidali dituzte.

"Egunon, guk botua eman genien alderdietan gertatu den aldaketa salatzera gatoz", esan dute. "Guk alderdi jakin bati eman genion botua, alderdi horrek aginte sail batzuk lortu zituen, eta orain, kargudunek beste alderdi batzuk sortu dituzte, guk botua eman ez genienak".

"Tira herritar soiltxook", erantzun die KJKBko langile saiatuak, "hori legezkoa da. Alderdi berriak sortzeko askatasuna dago, jendeak iritziz eta ideologiaz alda dezake. Zuek aipatutako bi alderdietako kasuetan, gainera, oso nabarmenak dira filosofia politikoaren arloan alderdi barruan militanteek izan dituzten eztabaida sakonak".

> **"Botua eman genien kargudunek beste alderdi batzuk sortu dituzte"**
>
> **"Hautatuetakoak alderdia utziz gero, kargua utz dezala"**

"Bai, baina botua ematerakoan zerrendan aldaketarik egiterik izan ez bagenuen, orain gustatuko litzaiguke zerrenda itxi horren eta alderdi horren arteko harremana errespeta dadila; eta beraz, hautatuetako batek alderdia uzten badu, utz dezala bere kargua".

"Ah, hautesle gajook, eta agintearen erotika? Eta karguaren ordainsaria?

"Barkatu, guk uste genuen erotika eta dirua nahasten zituen lanbideak ez zeukala, hain zuzen, politikarekin bat ere zerikusirik".

"Ez, politok", herritarren salotasunak aitakeria eragin dio bulegariari. " Erotika eta dirua elkartuta, politikan. Kargua, lantzen duenarentzako. Ez zenuten irakurri, zerrenden azpipartean, letra txiki-txikiz idatzita zegoen esaldia? Kargua nireaaaa da".

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Edu Mendibil Txomin Madina Arantzazu Ezkibel **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19 **Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Santamas Komisiñue Olariagaren lekukoa hartuko duen irudigilearen bila **> 15**



**> BERGARA**
Mekolalde jatetxeak ateak itxiko ditu hilaren 30ean; Florita Txintxurretarekin izan gara **> 17**



**> ANTZUOLA**
Eztalako futbol zelaia gertu dago belar artifiziala jarrita eta oinarri berezia dauka **> 20**

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Kultura plana osatzeko lehen fasean 55 herritarrek esku hartu dute

**TALDEKA**
Lau lantalde osatu dituzte, horietako hiru herritarren partaidetzarekin

**BATZORDE BERRIA**
Abendurako kultura batzorde berria sortu nahi dute



**ESKU-HARTZEA** Herritarren esku-hartzea areagotzea da muinetako bat. Argazkian, herritar ugari herriko plazan Txapeltxin jaian. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA
Aretxabaletako Udalak bukatu du kultura planaren lehen fasea. Hilaren 9an egin zuten aurkezpena Arkupe kultura etxean.

Guztira, 55 herritarrek parte hartu dute kultura plana garatzeko lehen fasean eta lau gai nagusi zehaztu dituzte: hain justu ere, elkarlanerako batzorde eragin-kor eta irekiaren beharra; Arkupe kultura etxearen kudeaketa; herriko lokalen berrantolaketa eta kultura eskaintza hobetzea. Era berean, atal nagusi bakoitzean hobetu beharreko gaiak zehaztu dituzte (ikus ondoko taula).

Lantaldeetan landutako guztiak txosten batean jaso ditu Elhuyar Aholkularitzak. Ondoren, txosten horretan oinarrituta, beste saio bat egingo dute Udaleko kultura batzordeko kide, ordezkari politiko eta teknikariekin.

**HELBURUAK**
Udala garatzen hasi den planaren helburu nagusia da herriko bizitza eta kultura dinamikaren inguruko gogoeta egitea eta kultura mailako etorkizuneko ildoak definitzea; eta hori guztiori, herritarren laguntzarekin egin dute.

Prozesuan parte hartu duten herritarrek borondatez egin dute. Guztira, 55 lagun elkartu dira. Lau talde osatu dituzte: hiru, adinaren arabera (16-20 urte artekoak, 20-55 urte artekoak eta 55 urtetik gorakoak) eta laugarrena, herriko taldetako ordezkariekin.

Talde bakoitzak bi saio egin ditu: lehenengo saioan Aretxabaletako kulturaren egoera aztertu dute; eta bigarren saioan, etorkizunerako proposamenak egin dituzte.

**BATZORDE BERRIAREN LANA**
Kultura planaren lehen fasea bukatuta, lanean jarraituko dute irailetik aurrera. Abendurako kultura batzorde berria sortu nahi dutela esan digu Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok.

Planean parte hartu duten herritarrek zehaztu duten moduan, kultura batzorde berriaren lanak izango dira kultura eskaintza hobetzeko sortzen diren arazoei irtenbidea ematea eta, hala badagokio, Arkuperen kudeaketa egitea, besteak beste. Bestalde, Udalak uste du batzorde berriak Arkupeko ildoak definitzen laguntzeko eskumenak izan beharko lituzkeela.

ONDORIO NAGUSIAK

**BATZORDE ERAGINKOR ETA IREKIAK**
- Kultura eragileen arteko komunikazioa ezinbestekoa da, eta Udalaren eta kultura eragileen arteko harremanak sendotu.
- Kultura eskaintza elkarlanean sortu behar dute.
- Egitarau bateratua egin, Udalak eta herriko taldeek antolatzen dituzten ekintzei lehentasuna emanez.
- Ezinbestekoa da elkarlanerako egitura berria sortzea.

**ARKUPEREN KUDEAKETA**
- Batzuen ustez, herriko enpresa baten esku utzi beharko litzateke; beste batzuen iritziz, Udalak edo sortzen duten egiturak kudeatu beharko luke.
- Udalaren ustez, garrantzitsua da egitura berriak eskumena izatea Arkupeko ildoak definitzeko.

**HERRIKO LOKALEN BERRANTOLAKETA**
- Herriko lokalak berrantolatu egin behar dira herritarren beharrak kontuan izanda.
- Kuartela bota aurretik, espazioa erabiltzen duten taldeei toki egokia topatzea.
- Arkupeko espazioaren erabilera optimizatzea.
- Gazteek gaztetxea behar dute; alkatea bilduko da eurekin.
- Gaztelekuaren egungo lokala ez da egokia.
- Ikuskizun handietarako aretoa kirol etxean egiteko ahaleginak egin behar dituzte.
- Iraeban eta Irurikua baserrietarako proiektuak martxan jartzea.

**KULTURA ESKAINTZA HOBETZEA**
- Kultura eskaintza hobetu, adina, jatorria, lanbidea eta generoa kontuan hartuta.
- Euskarari lehentasuna ematea.
- 16 urtetik gorako gazteendako ekintzak antolatzeko ahalegin berezia egitea.
- Kultura egitarauei astindua eman behar zaie eta gauza berriak antolatu.
- Etorkinak aintzat hartu behar dituzte.
- Kultura ez da kultura etxera mugatu behar.
- Egitura berriaren lan nagusia arazo guztiei konponbidea ematea da.




Ikutixo baserrikoek euren produktuak jarri zituzten salgai. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > BASERRITARREN AZOKA

# Ikasturteko azkeneko azoka egin dute Seber Altube plazan

## Arrasateko zortzi baserritarrez gainera, Zarautz, Urretxu eta Tolosakoak egon ziren zapatuan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Ikasturteko azkeneko azoka egin zuten zapatuan Seber Altube plazan, eta aurreko asteetan baino jende gutxiago ibili zen. Abuztuan azoka egin edo ez aztertzen dabiltza oraindik; hurrengoa, irailean izango da.

Arrasateko zortzi baserritarrez gainera, Zarauzko, Urretxuko eta Tolosako hiru baserritar ere etorri ziren Seber Altube plazako azokara. Tolosako Aldabe baserrikoek, adibidez, mota askotako gazta saldu zuten. Arrakasta izan zuen saltokia izan zen.

**ARRASATE** > CORAZON DE ENCINA

# Gazpatxoa eta sardina erreak banatu zituzten

## Extremadurako elkarteak urtero arrakastaz antolatzen duen ekitaldia izaten da

**A.E.** > ARRASATE

Arrasateko Corazon de Encina elkartean gazpatxo eta sardina erre jana egin zuten atzo. Berori aurre egiteko modu ezin hobea aukeratu zuten Extremadurako elkartekoek.

**GIRO APARTA**

Familia giroan batu ziren elkartearen goialdean dagoen terrazan, eta han erre zituzten sardinak. Urtero ospatzen duten ekitaldia izaten da, eta aurten ere arrakasta izan du.



Familia giroan ospatu zuten. J.A.




Hondarribiako Las Sfinters taldeak garaje-surf musika egiten du. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > KOTZERTUA TAUPAN

# Surf eta rock and roll musika zapatu gaua girotze aldera

## Los Galernas, Las Sfinters eta Los Mirandas taldeek jo zuten zapatuan Arrasaten

**A.E.** > ARRASATE

Zapatu gaua girotzeko, garage, surf eta rock and roll musika izan zuten arrasatearrek Taupa aurrealdean. Hasiera baten, beroa tarteko, jende gutxi zegoen, baina behin eguzkiak alde egin zuenean jendea animatu zen. Arrasateko Los Galernas, Hondarribiako Las Sfinters eta Logroñoko Los Mirandas igo ziren taula gainera.

Taupako Beñat Zaitegiren esanetan, sorpresa izan zen Los Mirandas taldea. Oso giro ona jarri zuten Logroñokoek.

IparProject
www.iparproject.com



Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa

Telleria 23, D5 pabilioia **Labegaraieta Industrialdea BERGARA** Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44




Mairuaren errendizioaren momentuan, euskaraz eta arabieraz berba egin zuen mairuak. JOSETXO ARANTZABAL



Aurten, lehenengo aldiz, emakumeek ere parte hartu dute fusilero moduan. J.A.

**ANTZUOLA** > JAIAK

# Mairuaren Alardeko aldaketek erantzun ona lortu dute

Ikusmin handia piztu du Mairuaren Alardeak, baina bestela ere, jende asko ibili da jaietan

**TXOMIN MADINA** > ANTZUOLA

Aurreko eguenaz geroztik, herriko jaietan murgilduta ibili da Antzuola. Mairuaren Alardea izan da ikusmin gehien piztu duen ekitaldia, herritarren artean ez ezik, baita kanpokoen artean ere. Baina gainerako ekitaldietan ere jende mordoa ibili da.

Eguenean bertan, jaien hasiera koloretsua egin zuten, eta alkate eta alkatesa txikien saioaren ostean, umeek udalekuetan gertatutako ikuskizuna egin zuten.

Iluntze aldera, eta salbearen ostean, Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea egin zuten. Urtero legez, Pedro Iturbe alkatea buru, aurreskua dantzatu zuten udalbatzako kideek.

**PAELLA LEHIAKETA**

Egubakoitzean, bigarren urtez, gastronomia lehiaketa egin zuten. Iaz marmitakoa izan bazen, aurten paella izan da prestatu beharreko platera, baina aldatu ez zirenak, irabazleak izan ziren: Florentino Lamariano eta Isidoro Quintana ibili dira berriz ere sukalde kontuetan nagusi.

Txosna batzordeak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu jaietan: herriko hainbat koadrila esaterako, altxorraren bila ibili ziren egubakoitzean, eta mus txapelketa ere egin zuten.

Jende asko ibili zen baita ere egubakoitzean, Antzuolako trikitilarien doinuekin egin zen poni eta zezentxoen erakustaldian.

**MAIRU IKUSGARRIAGOA**

Iragarritako aldaketak medio, jende andana bildu zuen Mairuaren Alardeak zapatuan. Lehenengo aldiz, fusileroen artean emakumeak egon dira aurten, eta alardearen beraren ibilbidea ere luzatu egin dute.

Mairuaren itxura eta eszenografia berria izan dira, baina zeresan gehien piztu duena. Herritarren artean galdetuta, gainera, esan daiteke aldaketak jendearen gustukoak izan direla. Ikusleen iritziz, itxura ikusgarriagoa izan du aurten mairuak, eta bere figura duintzeko ahalegina ere ontzat eman dute.

Juan Carlos Gomezek bete du aurten lehenengoz Abderraman III- a mairuaren papera, eta hasierako urduritasunak alde batera utzita, bera ere pozik zegoen alardeak emandakoarekin.



Pedro Iturbe alkatea eta Mari Paz Ugalde Udalbatzaren aurreskuan. IRATI GOITIA



Zezentxoetan susto bat edo beste egon zen arren, gazte antzuolarrek trebezia erakutsi zuten. TXOMIN MADINA



Acordes Navarros jota taldeak girotu zuen domeka goiza. T.M.



Errekortadoreak dira sanjuanetatik herritarrek gustukoen dituzten ekitaldietako bat. GOIENKARIA

**UDALA** > EZOHIKO OSOKO BILKURA

# Zezen jaialdien zilegitasuna eztabaidagai politikarien artean

Sanjuanetako bigantxak debekatu beharra dagoen ala ez da, besteak beste, Arrasateko politikariek eztabaidatu zutena osoko bilkuran

**U.M.**> ARRASATE

Korridak, zezen jaialdiak eta animalien kontrako tratu txarrak. Horiek izan ziren politikarien eztabaidagai nagusiak ikasturteko azken osokoan, eguenean. Alternatiba-Zutik koalizioaren mozioak eragin zuen eztabaida.

Labur esanda, koalizioak gura du udalerria Zezenketen Aurkakoa eta Animalien Laguna dela adieraztea. Besteak beste, eskatzen du Arrasateko Udalak ez dezala parte hartu "korridak bezalako ikuskizun krudeletan eta ezta animaliak torturatu edo hiltzen dituzten beste edozein ikuskizunetan", eta honako hau ere bai: "Arrasateko Udalak udalerria zezen jaialdien kontrakoa eta animalien laguna" dela deklaratzea.

Mozioa ez zuten onartu, baina boto bakarrarengatik. Aldeko lau boto (Alternatiba-Zutik koalizioa eta EA); kontrako bost (PSE-EE eta PP) eta hamar abstentzio (Talde Mistoa eta EAJ) izan zituen. Aralarko ordezkari bat eta EAJko beste bat falta izan ziren osokoan.

**KOALEN KORRIDAK**

Justu, zezen jaialdien kontrako adierazpen eskea izan zen eztabaidaren gakoa eta Alternatiba-Zutik koalizioaren mozioa ez onartzeko arrazoi nagusietako bat. PSEk animalia eta landareen kontrako delituak zigortzen dituen legea badagoela gogora ekarri zuen eta, besteak beste, Aritz Arrietak argudiatu zuen zezen batzuk existitzen direla korridei esker.

Alternatibako Ander Rodriguezek erantzun zion hari. Batetik, gogora ekarri zion animalien babeserako legeak zezen jaialdiak kanpo uzten dituela. Eta bestetik, honako galdera bota zion: "Zezenek zezenketei esker bizi irauten badute, orduan, koalen korridak ere egin beharko genituzke?".

**ARRASATEN, TRATU EGOKIA**

Oihana Aranburu Talde Mistoko zinegotziak azpimarratu zuen Arrasaten korridarik ez dagoela eta Arrasateko Udala "ahalegintzen" dela animaliei "tratu egokia" ematen. Mozioa "hankamotz" geratzen dela ere esan zuen, ez datorrelako bat "herriaren errealitatearekin", eta animaliei eragiten dieten bestelako tratu txarrak ez dituztelako kontuan hartzen; zirkua ipini zuen adibide moduan.

Alkateordearen iritziekin bat etorri zen EAJ. Arrasaten ez dagoela korridarik eta mota askotako tratu txarrak daudela. Rafael Uribarren zinegotziak txerribodak eta ahari edo idi probak ipini zituen adibide; mozioa mahai gainean uztea ere proposatu zuen, "hobeto lantzeko", mozioaren intentzioa "zentzu onean" doalako.

**BIGANTXAK KENDU?**

PPk, berriz, honako galdera egin zuen: "Zer egingo dugu, bigantxak kendu? Guztiari ezin zaio ezetzik esan". Itziar Lamarain bozeramaileak esan zuen, baita ere, mozioan guztia zegoela "nahastuta". Gaineratu zuen Arrasateko Udalean daramatzan bi agintaldietan ikusi duenez, Arrasateko Udalak "ez ditu eskuak garbitzen animaliak babesteko orduan".

Eta EAren izenean Pello Urizarrek azpimarratu zuen "animalia guztiek" sufritzen dutela bakarrik "gizakia ondoan izatearren". Edozelan ere, esan zuen, baita ere, ez dela "gauza bera zezenketetako sufrimendua, Arrasaten zezenek sufritzen dutenarekin".

EKONOMIA

## Udal aurrekontua indartuko du Udalak lehentasunetarako

Ia milioi bat euro desbideratuko ditu Udalak aurrekontua indartzeko. Gastuak ugaritzeak (laguntza eskaera gehiago) eta dirusarrerak gutxitzeak eragin du beharra zenbait lehentasuni aurre egiteko. Hala, Udalak 972.115 euro desbideratuko ditu. Diru hori erabiliko du, besteak beste, larrialdietako laguntzetarako (250.000 euro), Zerrajera 2 urbanizatzeko (500.000) eta Iturbide egoitzan inbertsioak egiteko (100.000). Eta diru hori lortuko dute lehenagotik Udalean dagoen soberakinarekin (707.115 euro) eta zenbait sailetan gastuak txikitzearekin.

**INGURUMENA**> ORTU EKOLOGIKOAK

# 177 herritarrek eman dute izena ortuen zozketarako

Izena emandako 177etatik, sei lagunek bakarrik dute ortua Arrasateko beste lekuren batean

**U.M.** > ARRASATE

Garagartzako ortu ekologikoen zozketaren prozesua aurrera doa. Zozketarako aurkeztu ziren 197 lagunetatik 20 baztertu egin ditu Udalak, baldintzak betetzen ez dituztelako. Hala, 177 lagun dira zozketan parte hartuko dutenak, gizonak gehienak: 128. Zerrendak kontsulta daitezke BAZen, Udalaren webgunean (*arrasate-mondragon.org*) eta udaletxe azpiko iragarki-taulan.

Deigarria dena da erretiratu gutxi aurkeztu dela ortuotako bat eskuratzeko, nahiz eta herritar askok pentsatu erretiratuendako ortuak direla Garagartzakoak. Adibidez, 71 urtetik gorako bostek eman dute izena eta 61-70 urte bitarteko 24 lagunek. Ugarienak, berriz, 51-60 urtekoak dira: 48 lagun.

**ZOZKETA, IRAILEAN**

Ortuen zozketa irailaren lehen hamabostaldian egingo dute. Eta behin ortuak zozketatuta, urriaren hasieran egingo dute behin betiko adjudikazioa.

87 ortu ekologiko egokitu dituzte Garagartzan (Fagor ondoan) eta horietatik 80 zozketatuko ditu Udalak. Gainerako zazpiak bere erabilerarako gordeko ditu. Ortu horiek 50 eta 70 metro karratu arteko azalera dute. Zozketan ortua eskuratzen duenak asko jota 20 urtean erabili ahal izango du.

> IRAKURZALETASUNA

## Egubakoitzean, uztailaren 24an, bukatuko da 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena

*Irakurri, gozatu eta oparitu* egubakoitzean bukatuko da. Horrek esan gura du ekimenean parte hartzen diharduten irakurleek egubakoitza baino lehen entregatu beharko dituztela irakurritako liburuen gaineko txartelak. Ezinbesteko baldintza da hori *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimenean parte hartzeko, txartel hori entregatu ezean ezin izango dute-eta euskarazko liburuak merkeago erosteko txartelik eskuratu trukean. Arrasaten, besteak beste, AED eta Txatxilipurdi elkarteek bideratu dute euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina; datuen arabera, liburua eta txartelak eskatu dituztenetako gehienek ez dute oraindik txartelik entregatu.



GOIENKARIA

## Poker-Texas partidetan, 40 lagun

Eskoriatzako Julen Agirianok eraman zuen Txinato tabernako Poker-Texas karta-joko lehiaketako lehen saria (768 euro). Bigarrena, berriz, Arrasaten geratu zen, Rakel Pinillosen eskuetan (480 euro). Argazkian azaltzen dira bi irabazleak, Txinato tabernako Patxi Canelorekin. Hark emandako datuen arabera, lau mahaitan banatutako 40 lehiakideren artean gailendu ziren argazkiko bi lagunak. Edozelan ere, biendako ez ezik, beste bost lagunendako sariak ere banatu zituzten; guztira, 1.920 euro eman zituzten saritan.

Arrasate Poker Klub elkarteak antolatu zuen poker txapelketa hori joan den asteburuko, *Texas hold'em* modalitatean.

**SANTAMASAK** > IRUDI LEHIAKETA

# Komisiñue, Olariagaren lekukoa hartuko duen irudigilearen bila

Marrazkilari famatuak ez du Santamasetako kartela egingo eta Santamas Komisiñuek irudi lehiaketa deitu du; irudi aldaketa "erronka handia" dela diote

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Urte luzez egin ostean, Antton Olariagak aurten ez du Santamasetako kartela egingo. Hortaz, 2009ko Santamasek ez dute azken urteotan marrazkilari usurbildarrak garatutako estilo propioa izango.

Bada, Santamas Komisiñuek deitu du dagoeneko irudi lehiaketa, Santamas jaietako irudi aldaketak dakarren "erronka handia" ikusita. Edozelan ere, Komisiñue ziur dago artista arrasatearrek "oso lan onak" aurkeztuko dituztela.

**ADIERAZGARRIA, GAUR ETA BIHAR**
Ekimena kartel lehiaketa soila ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada, eta egileek kartelaz gain eskuorrirako zein kartel bateraturako –ekintza garrantzitsuenak jasoko dituen kartela– proposamena egin ahalko dute. Irudiak, noski, jaien adierazgarri izan behar du. Egileak jaiaren bilakaera, herrian duten garrantzia eta Olariagaren irudiak markatu duen joera hartu beharko ditu kontuan. Gainera, irudiak etorkizunean adierazgarri izango den marka sortzeko irizpideak markatzea ere baloratuko du epaimahaiak.

**URRIAREN 16A BAINO LEHEN**
Edozein zalantza izanez gero, *santamasirudilehiaketa@gmail.com* helbidera idatz daiteke, eta lanak urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira, BAZen.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

### Irudi aldaketa duina bermatu gura duen lehiaketa

Komisiñoak irudi aldaketa duina bermatu gura du Santamasetarako. Horretarako antolatu du lehiaketa; hauexek dira interesatuak kontuan hartu beharko dituen oinarri garrantzitsuenak:

Honakoa izango da testua: *Santamasak 2009. Arrasate. Abenduak 22*, eta irudian, gutxienez txerria, Udalatx eta Portaloia agertu beharko dira. Formatua eta sortze teknika –collage-a, diseinu digitala, akrilikoa...– libreak izango dira. Gainera, irudiak eskuorri, zozketa, kartel eta logo formatuetarako erabilgarria izan behar du.

Komisiñoaren helburuetako bat lan irabazleari –kalitate nahikorik ez badago ez da lanik aukeratuko– zenbait urteko jarraipena ematea, gutxienez bi urtez. Ohoreaz gain, irabazleak 900 euroko saria jasoko du.



Olariagaren iazko irudia, eta azkena.


Horixe da Sanjuanetako argazki irabazlea. JABIER OSES AZURMENDI

**SANJUANAK** > ARGAZKI LEHIAKETA

## 'Txominen tronboia' izan da bigarren edizioko irabazlea

Jabier Oses Azurmendiren argazkia aukeratu du Jai batzordeak erretratu onena moduan

**J.B.** > ARRASATE
Albiste honetako testuaren gainean dagoen irudia da 2009ko San Juan jaietako argazki onena. Halaxe uste du Jai batzordeak, argazki lehiaketara aurkeztu diren erretratuen artean argazki hori aukeratu du-eta.

Jabier Oses Azurmendi da argazkiaren egilea, eta *Txominen tronboia* moduan izendatu zuen. Argazkian ikusten denez, tronboian bertan islatzea lortu zituen udaletxea eta ekainaren 20an haur danborrada ikustera Herriko Plazara gerturatu zen jendea. Ez da agian ekitaldi garrantzitsuenaren erakusgarri, baina Jai batzordeak irudiaren alde artistikoa baloratu du. Sari moduan Muxibar jatetxean bi pertsonarendako afaria eta garaikurra jasoko ditu Osesek. Epaimahai herrikoia izan da: batzordeko kide bat eta argazkigintzan aditua den beste bat.

**MUGIKORRETIK, BAT ERE EZ**
Lehiaketak atal bi izan ditu: kamera digitalarekin ateratako argazkien atala eta mugikorretik ateratakoena. Hala ere, Jai batzordeak jakinarazi duenez, aurten ez dute azken sailerako argazkirik jaso; eta, beraz, ez dute saririk eman.

Azkenik, antolatzaileek argazkiak bidali dituztenei eskerrak eman gura izan dizkiete.

**OBRAK** > ARGITERIA

## 17.500 euro gastatuko dira 55 farolatan

Uarkapen, Altamiran eta Uribarrin jarriko dira kontsumo txikia eta argiztapen hobea duten 55 farolak

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Kaleak argiztatzea ez da merkea. Beharrezkoa bada, ordea. Udalak joan den asteleheneko gobernu batzarrean esleitu zituen epe luzera begira merkeagoak irtengo diren farolak jartzeko proiektua. Izan ere, jarriko diren kale argi berriak kontsumo txikikoak dira.

Eta gutxiago kontsumitzeaz gain, kale argi berriek aldatzeke dauden farola esferiko zaharrek baino hobeto argiztatzen dute, argia alde guztietara barreiatu beharrean gune zehatzak argiztatzen dituztelako.

**ASPALDIKO KONTUA**
Udalak urteak daroatza kaleko argiak aldatzeko proiektuarekin. Dagoeneko 317 farola aldatu dituzte, baina badago lana oraindik; 189 farola geratzen dira-eta aldatzeke.

Bestalde, aldaketez gain, farola berriak ere jarriko ditu Udalak: adibidez, Mojategi eta Kataide industrialdearen artean dagoen pasealekua argituko dute, 14 argi puntu berrirekin.

DATUA

**189**

**FAROLA ALDATZEKE ORAINDIK**

Farolen aldaketak luze joko du oraindik. 189 kale argi daude aldatzeke, eta Udalak apurka-apurka egingo ditu lanok.


GOIENKARIA

## Ohiturari eutsiz, egun borobila lagun artean

Irudiko lagun koadrilak uztaileko lehen zapatuan Euskal Herriko txokoren batera egiten du irteera, eta aurten ere ez diote urteroko hitzorduari hutsik egin. Bizkai aldera joan dira aurten, Urdaibai ingurura. Goizean zehar bertako paraje ederrekin gozatu ostean, Kortezubira joan ziren bazkaltzera. Markoren jatetxean bapo jan zuten eta gero argazkia atera zuten sukaldariarekin. Eguna primeran amaitzeko, Bilboko Arte Ederren Museoa bisitatu zuten eta hiriko alde zaharrean zehar ere ibili ziren.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2008ko uztailaren 20a

**JAIAK** > SANTIAGOAK

# Izen handiko bertsolariak Basalgon eta Goimendin

Santiago jaiak ospatuko dituzte datorren aste bukaeran bi auzoetan eta beste ekitaldi batzuekin batera, bertso emanaldiak egongo dira



Irudian, Xabier Amuritza Elorregiko jaietan. I.A.

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Egubakoitzean, hilaren 24an, hasiko dira Basalgon jaiak eta domekara arte iraungo dute. 18:30ean makala jasoko dute, eta hala abiatuko dira jaiak. Zapatuan meza nagusia izango da 11:00etan; eta 12:00etan, Basalgon 27. txirrindulari igoera jokatuko da. 12:30ean, berriz, bertsolariak egongo dira: Xabier Amuritza eta Angel Mari Peñagarikano, hain justu ere. 13:00etan, goi mailako pilotari profesionalen partidua izango da eta bukatu eta gero, erromeria, Alai Taldeak eta soinu-jotzaileek alaituta.

**BERTSO BAZKARIA**

Bertso bazkaria ere izango da zapatuan. 15:00etan izango da, Amuritza eta Peñagarikano bertsolariekin. Soinu-jotzaileak ere egongo dira giroa alaitzen. Bertso bazkarirako izenematea Iraho eta Mekolalde tabernetan da, uztailaren 23a baino lehen. Bazkalostean erromeria egongo da.

Domekan ere meza izango da 13:00etan eta bukatu eta gero luncha egongo da hurbiltzen diren guztiendako. Jaiei bukaera emateko, 14:30ean bazkaria egingo dute erretiratuen eta jai batzordeak. Bazkarirako izenematea uztailaren 23a baino lehen egin behar da, Basalgoko elkartean.

**GOIMENDIN ERE JAIAK**

Elgetako Goimendi auzoan ere Santiago jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran.

Egubakoitzean emango diete hasiera jaiei, 21:30ean plazan egingo duten berakatz-zopa afariarekin. Afaldutakoa *jaisteko*, 23:00etan erromeria izango da, Jon Ostolatza eta Unai Andonegi trikitilariekin.

Zapatuan meza izango dute 11:00etan eta 12:00etan soka-dantza izango da Kezka taldearekin. 12:30ean, berriz, Joxe Agirre eta Jesus Mari Irazu bertsolariek saioa egingo dute eta bukatzen dutenean, Imanol Astiazaran eta Izer trikitilariek.

Umeendako jolasak ere egongo dira, 13:00etan; eta 18:00etan, berriz, herri kirolak. 18:30ean, bola joko txapelketa jokatuko da;eta 19:00etan, saioa egingo dute berriro Agirre eta Irazu bertsolariek. Saioa bukatu eta gero, Imanol Astiazaran eta Izer trikitilariek egingo dute emanaldia. Jaiei amaiera emateko, 20:00etan txokolate-jana egongo da eta urdaiazpikoa zozkatuko dute.

**ONDAREA**

## Elosuko trikuharrien liburuxka egin dute

**M.B.** > BERGARA

Elosu-Plazentziako estazio megalitikoaren gaineko liburuxka eskuragarri jarri dute turismo bulegoan. 1.000 ale kaleratu dituzte eta doan har daitezke. Liburuxkak mapa du, non estazioa osatzen duten 18 trikuharri eta tumuluak jasota dauden. Hilobiratze modu horien gaineko informazioa ere batzen du.

Liburuxka egin du Luis del Barrio Aranzadi zientzia-elkarteko kideak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.



Liburuxkaren azala. GOIENKARIA

## Egubakoitzean bukatu zuten 'Kosta ala kosta' udaleku ibiltaria

Uztailaren 6an hasi eta egubakoitzean, hilaren 17an, bukatu zuten Bergarako zortzi gaztek eta Euskal Herriko beste 22k *Kosta ala kosta* udaleku ibiltaria. Araban hasi zuten ibilaldia, Ozetan, eta lau hezitzailerekin batera honako ibilbidea egin zuten: Ozeta, Gatzaga, Matiena, Laida, Mundaka eta Bermeo. Asko ibili eta leku ezberdinak ezagutzearekin batera, zenbait ekintza egiteko aukera ere izan dute: jolasak, eskalada, kanoan ibili... Udaleku ibiltari hori antolatzen dute lau euskara elkartek: Lasarteko Ttakunek, Durangoko Berbarok, Arrasateko Txatxilipurdik eta Bergarako Jardunek, eta bideratuta dago 14 eta 16 urte arteko gazteei.

Ondoko argazkiak Ozetan atera zituzten, udalekua hasi berri. Talde argazkiarekin batera jolasean daudela ere atera zuten argazkia.





GOIENKARIA

**oharrak**

ZOZKETA

**> San Kristobalgo jaietako zenbaki saritua atera da**

Zenbaki saritua izan da 7.200. Legorretako Bartzelona landetxean bi lagunendako egonaldia irabazi du Alex Alberdik.

ORDUTEGI ALDAKETA

**> Farmaziek opor txandak egingo dituzte**

Herriko farmazien opor txandak hauek izango dira: uztailaren 15etik abuztuaren 15era, Zabala eta Urritikoetxea; abuztuaren 16tik irailaren 16ra, Estella eta Alvarez-Mozos; eta abuztuaren 1etik 31ra, Guallar.

ZUZENKETA

**> Kirol taldeendako laguntzen epea da irailaren 21era arte**

Udaletik ohartarazi dutenez, kirol taldeendako dirulaguntzetarako eskariak egiteko epea bukatuko da irailaren 21ean, eta ez irailaren 7an, aurreko astean akatsez jakinarazi zuten moduan. Udalak 2009. urtean 110.000 euro bideratu ditu laguntzotarako. Eskaerak aurkezteko ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00, udaletxeko erregistro orokorrean. Dirulaguntza horien oinarriak eskura daitezke *www.bergara.net* helbidean.

**Florita Txintxurreta** > Mekolalde jatetxeko nagusia

# "Bezeroendako esker luncharekin itxiko dut Mekolalde jatetxea hilaren 30ean"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

**Florita Txintxurretak 65 urte bete zituen ekainean eta dagoeneko erretiroa hartzeko garaia iritsi zaio. Lan asko egin duen emakumea da; azken 25 urteotan Mekolalde jatetxeaz arduratu da eta uztailaren 30ean itxi egingo du. Familia, bezero eta auzotarrendako luncha egingo du egun horretan, guztiei eskerrak eman nahi dizkie-eta.**


Florita Txintxurreta, Mekolalde jatetxearen sukaldean. ZIORTZA MARTIN

**Laga egingo duzu jatetxea; zergatik?**

Erretiroa hartzen dudalako; izan ere, ekainaren 22an 65 urte bete nituen. Jatetxea itxiko dugu uztailaren 30ean. Hori izango da zabalik egongo den azken eguna.

**Agur jaia ere egingo duzue.**

Bai, luncha egingo dugu familiakoekin, bezeroekin eta Osintxu bailarako auzotarrekin. 19:00etan hasiko da luncha.

Alabaren eta gurekin lanean diharduen neskaren ideia izan zen eta niri oso ondo iruditu zitzaidan. 25 urteotan gure bezero izan diren guztiei eskerrak emateko modua da luncha. Izan ere, oso pozik nago izandako bezeroekin, oso onak izan dira eta asko maite dugu elkar.

**Oso bezero fidelak izan dituzu, kontuan izanda, gainera, Mekolaldera autoz joan behar dela. Zein izan da zure sekretuaren giltza?**

Bergara eta Osintxukoez gain, Elgetako, Antzuolako, Soraluzeko... bezeroak izan ditugu. Leku askotarikoak. Eta horietako asko urte askoan etorri izan dira. Sekretua zein den ez dakit.

**Ematen duzuen janaria eta eskainitako tratua izango dira.**

Baliteke. Oinarri horiekin hasi nintzen lanean eta burubelarri ekin diot hala izan zedin. Bezeroak ondo zaintzeko ahalegin handia egin dut. Eta ni ere fidela izan natzaio jatetxeari: egutegi eta ordutegia beti errespetatu izan ditut asko, eta ahalik eta ordutegi zabalena izaten ere saiatu naiz. Zorrotza izan naiz horretan, beti pentsatu izan dut-eta hori dela zerbitzu on eta osoena emateko eginbeharrekoetako bat.

**"Izugarrizko pena ematen dit jatetxea lagatzeak; pentsatzean, negarra etortzen zait"**

**Ekainaren 1ean 25 urte bete zituen jatetxeak. Atzera begiratzean zer datorkizu gogora?**

Izugarrizko pena ematen dit lagatzeak. Pentsatzen jartzen naizenean, negarra etortzen zait.

Asko lagundu didan jendea izan dut inguruan, oso jende berezia, eta adin guztietakoa gainera, nagusiagoak eta gazteagoak. Pentsa, 25 urteotan ez dut izan arazo bat bera ere bezeroekin, ez dut sekula Ertzaintzara deitu beharrik izan. Eta niretzat hori oso pozgarria da.

**Ostalaritzarako zaletasuna familiatik datorkizu.**

Antxoni amarekin eta ahizparekin ikasi nuen, jatetxean. Baina anaia gaixotu egin zen, ume txikiak zituen etxean eta laguntzera joan nintzaion. Hainbat urte han egon eta gero, Mekolalde jatetxea eskaini zidaten eta ilusio handiarekin ekin nion.

Proba moduan hartu nuen, eta, ikusita jendea bazebilela, bada, obra egin eta jarraitzea erabaki nuen. Eta alaba Liernik eta suhi Iñakik asko lagundu didate. Baita gurekin 16 urtean lanean ibili den Elik ere.

**Alabak ez du lekukoa hartuko?**

Alabak nirekin jardun izan du. Hura arduratu izan da jatetxeko gauza askotaz, niri sukaldean laguntzeaz gain. Eta asko balio duen arren, hau oso lan lotua da; gainera, industriagunea ere zabaldu dutenez, bada, lan handia dago, eta nik lagaz gero, langile gehiago hartu beharko lituzke eta... Alabak ere pena handia dauka.

**Zer egingo duzu aurrerantzean?**

Senarra zenaren ama nirekin dago. 94 urte ditu eta harekin Bergaran daukadan etxera joango naiz bizi izatera. Eta ahalik eta ondoen zaintzen saiatuko naiz.


GOIENKARIA

## Aparkalekuak egokitzen ari dira Ozaetan

Ozaeta auzoan, erreka aldera aparkalekuak egokitzen dihardute Udaleko langileek. 30 bat autorendako aparkalekua egokituko dute, nahiz eta zenbaki hori behin-behinekoa den, udal iturrien arabera: "Lanak hasi berri dira eta orubea txukuntzen bukatu arte ez dugu jakingo zehazki zenbat autorendako lekua egongo den". Aparkalekuko zoruarekin batera, oinezkoendako bidea txukundu egingo dute. 4,15 metro zabal izango da eta bidearen eta aparkalekuaren artean hormigoizko pareta egingo dute.


GOIENKARIA

## Osin putzua bainurako prest dago

Prest dago Angiozar errekan dagoen Osin putzua bainurako. Aurreko astean garbitu zuten: kendu dizkiote neguan barrena metatuta geratu diren harri, hosto, adar eta beste. Udala urtero arduratzen da putzua garbitzeaz, udan bainua hartzera hara hurbiltzen diren gaztetxoendako. Garbitze lanak egin ditu Aila Proiektuak eta Eraikuntzak enpresak, 11.310 euroko aurrekontuarekin.



Azken hiru urteetan egin dute surf festa. Goiko argazkian, duela bi urteko sardina-jana. GOIENKARIA

**AISIALDIA** > KALEAN'09

# Surf festa, kale antzerkia eta kontzertuak Kalean'09 egitarauan

Rock Privadok, Malenkoniak eta Aurora Beltranek jarriko dute musika eta Trapu Zaharrak-ek egingo du antzerkia uztail eta abuztu bukaeran

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Abuztuko oporretatik datozenei ongietorria egiteko Kalean'09 egitaraua osatu dute gaztelekuan. Musika emanaldiak, zinema proiekzioak, kale antzerkia eta surf festa egingo dituzte. Lehen ekitaldia hilaren 30ean egingo dute eta gainerakoak, abuztuaren 28tik irailaren 5era bitartean.

Kalean'09 egitaraua hasteko, Donostiako Rock Privado taldeak kontzertua egingo du hilaren 30ean San Anton plazatxoan, 20:00etan. Oñatiar bat dago talde horretan: Andoni Regueiro, hain zuzen ere. *En todo este tiempo* diskoko kantuak eta esku artean duten bigarren diskoaren aurrerapena egingo dute.

**SURF FESTAREN III. EKITALDIA**

Abuztuko azken aste bukaeran zinema, antzerkia eta musika izango dira protagonista nagusiak. Abuztuaren 28an, egubakoitza, 17:00etan hasita askotariko film emanaldiak egingo dituzte gaztelekuan; besteak beste, Habanako gazteei buruzko film laburrak eta Pernan Goñi oñatiarraren dokumentala eskainiko dituzte. Abuztuaren 29an surf festaren III. ekitaldia egingo dute: sardina-jana, bideo emanaldiak eta musika izango dira San Anton plazatxoan, 18:00etan.

Bestalde, Trapu Zaharrak taldeak *Lehiaketa* antzezlana aterako du kalera abuztuaren 30ean. Azkenik, irailaren 5ean Malenkonia oñatiarrek *Hegazkada dakar ekaitza* diskoa aurkeztuko dute Atzeko kaleko jaietan Aurora Beltranen laguntzarekin.

> ORDUTEGIA

### Gaztelekuko topalekua zabalik egongo da abuztu osoan

Herritarren erantzuna ikusirik, iaz egindako moduan ateak zabalduko ditu gaztelekuko topalekuak abuztuan. Asteko egun guztietan zabalduko dute: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan 17:00etatik 20:00etara. Uztailean ohiko ordutegiarekin zabalduko dute.

> DEIALDIA

### Baserrietako plastiko bilketa egingo dute hilaren 28an

Baserrietan pilatutako plastikoa batzeko bilketa egingo dute hilaren 28an. Lau lekutan utz daiteke plastikoa: Zañartu auzoan, Zuazola zubiaren ondoan; Murgia auzoan Asentzio ermitan; Olabarrietako autobus geltokian; eta ETEOko eraikinaren atzealdean. Plastikoak ondo lotuta aurreko eguneko 17:00etarako utz daitezke leku horietan.

> LEHIAKETA

### 'Batetik bestera' argazki lehiaketa egingo dute uda ondoren

Lehiaketako deialdia irailean egingo dute, baina topalekuko arduradunek *Batetik bestera* lehiaketako xehetasunak aurreratu dituzte. 12-18 urte artekoendako izango da eta parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahalko ditu.

Lehiaketa irabazten duenari 150 euro emango diote eta bigarrenari 100 euro.

## oharrak

DEIALDIA

**> Gaur da herri tabernarako eskaerak aurkezteko azken eguna**

Urriaren 3an ospatuko duten Herri Eguneko herri taberna hartu gura duten taldeek kultura etxean egin beharko dute eskaera. 30 lagunetik gorako taldeak aurkez daitezke deialdira. Batek baino gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo dute.

DANBORRADA

**> Danborrada nagusirako izenematea hilaren 29ra arte**

Irailaren 28an egingo dute nagusien danborradan dantzari edo danbor-jotzaile irten gura dutenek kultura etxean edo gaztelekuan eman behar dute izena.

IRTEERAK

**> Arrikrutzeko irteera gehiago egingo dituzte aste bukaeran**

*Arrikrutz zuzen-zuzenean* delako irteera egingo dute zapatuan, hilaren 25ean. 10:30ean euskaraz egingo dute eta 11:00etan espainolez. Bisitan parte hartu gura dutenek aldez aurretik deitu behar dute 94 08 20 00 telefonora.

Bestalde, abuztuan irteera gehiago egingo dituzte: *Arrikurtz zuzen-zuzenean* abuztuaren 1ean, 15ean eta 29an; *Arrikrutz kanpotik* abuztuaren 8an eta 22an; eta *Arrikrutz barnebarnetik* abuztuaren 9an eta 23an. Gainera, ohiko bisitak egingo dituzte martitzenetik domekara, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara arte.

> LANAK

### Errekaldetik Lizargaratera doan pista konpontzeko lanak hasi dituzte eta bidea moztu egin dute

Errekalde eta Lizargarate artean dagoen pista konpontzeko lanak hasi berri ditu Lurkide SL enpresak. Bidean egin behar dituzten lanak kontuan hartuta, eta Lizargaratera joateko herritar askok bide hori erabiltzen dutenez, bidea ixtea erabaki dute. Lanok irauten duten bitartean kontu handiz ibiltzeko aholkua egin dute udal arduradunek.

Bestalde, Arantzazuko Goiko Bentatik Sindikara doan pistako ura bideratzeko lanak egitea onartu zuen apirilaren 30eko Tokiko Gobernu Batzarrak. Lanak egiteko bi aurrekontu aztertu ondoren, Irazola Indusketak egindakoa onartu dute. Aurrekontua 2.600 euro izango da.

## txaloak eta txistuak



MIREIA BIKUÑA

## Ispilua falta da Olaiturriko aparkalekuaren sarreran

Lizaur kale inguruan bizi den herritar batek deitu digu Olaiturriko aparkalekuaren sarreran dagoen ispilua apurtuta dagoela esateko. "Aste bukaeratan auto asko ibiltzen da aparkalekuan eta komenigarria da ispilua konpontzea, istripuren bat gertatu aurretik. Gainera, ez da lehen aldia ispilua apurtzen dutena", dio.



Uztailaren 9an Gamarrako igerilekuan eman zuten eguna Eskoriatzako eta Aretxabaletako 32 gaztek. GOIENKARIA

Bihar, martitzena, lau eguneko irteera dibertigarriari hasiera emango diote bi herrietako hogei gaztek; Laidako kanpinean izango dira

**ARETXABALETA-ESKORIATZA** > GAZTEAK

## Orain arteko balorazio oso positiboa egin dute Udaeroren harira

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Dena aurreikusi bezala irteten ari da aurtengo Udaero programan. Gazteak antolatutako ekimenetan parte hartzen ari dira; are gehiago, ezin hobeto pasatzen ari dira. Ekimenei hilaren 6an eman zieten hasiera, Zarautzen, surf ikastaroarekin. Arrasateko Udaixekoekin batera joan ziren hara; guztira, 36 neska-mutiko. Usakora bizikletaz egindako irteeran ere arrasatearrekin egon ziren. Aukeran bi ibilbide izan bazituzten ere, gehienak trenbide zaharretik joan ziren.

Uztailaren 9an, berriz, urteroko ekintza arrakastatsuenetarikoa egin zuten: Gamarrako igerilekura irteera. Guztira, 32 gaztek eman zuten eguna han. Eta hilaren 13an, aurtengo egitaraukо irteera berria estreinatu zuten: Arabako Egino herrian izan ziren hamar gazte eskalada egiten. Antolatzaileen esanetan, "hasieran, izena hamabostek emanda bazuten ere, azkenean hamar joan ziren; gehienak neskak. Ikastaro laburra eta aditu baten azalpenen ostean, bide berria zabaldu zuten. Eguraldia lagun izan zuten eta egun ederra pasa zuten".

**LAIDAN LAU EGUN**

Egueneko kontzertu eta afariendaren ondotik, egitarauaren ekimen nagusia iritsiko da asteon. Bihartik egubakoitzera bitartean, Laidako kanpinera joango dira. Han ekintza bereziak egiteko aukera izango dute, hala nola askotariko kirolak, gaubelak eta hondartzan egotea. 20 gaztek eman dute izena horretan.



GOIENKARIA

## Carmen Aranburuzabalak 100 urte bete zituen eguenean

Eguenean Carmen Aranburuzabalak 100 urte bete zituen eta ezohiko bisita izan zuen: Udaleko hainbat ordezkari, txistulari eta dantzariekin joan ziren. Honez gaiz, opariak ere eraman zizkioten. Olazar elkartetik Maximo Iñurritegi eta Emilita Gartzia izan ziren. Etxekoak ere ondoan izan zituen.

**ARETXABALETA**

## Ikastaroa eta ipuin kontalaria gertu daude

Arkupeko egitarauaren barruan udako zinema ere badago

**M.B.** > ARETXABALETA

Arkupeko egitarauaren barruan hiru ekimen daude aurreikusita datozen egunotarako. Gaur, astelehena, udako zinemaren harira, *Noche en el museo 2* filma eskainiko dute, 16:00etan. Eguaztenean eta egubakoitzean, berriz, *Fuga de cerebros* emango dute, 21:30ean. Udako zinemaren prezioa bi euro da.

Bestalde, hilaren 20an, 22an eta 24an sendabelarren gaineko ikastaroa eskainiko du Daniel Perezek. Eskolak doan eta goizez izango dira, 11:00etatik 13:00etara.

Azkenik, hilaren 23rako, eguena, haurrendako ekimena dago aurreikusita. Rosa Maria Martinezek *Elefante bitxi bat* izeneko ikuskizuna eskainiko du, 17:30ean.

> ARETXABALETA

### Kiroldegi berria egiteko lanak esleituko dituzte

Gaurko, astelehena, ezohiko osoko bilkura deitu du Aretxabaletako Udalak. Hiru gai landuko ditu udalbatzak; besteak beste, kiroldegi berria egiteko lanen behin-behineko esleipena adostea aurreikusita dago.

Horretaz gain, AP-1 autobideko lanek kaltetutako jabeek aurkeztutako idatziaren gainean jardungo dute batzarrean. Honez gain, maileguaren epearen aldaketa egingo dute. Osoko bilkura, betiko moduan, 18:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Belar artifiziala ipini dute Eztalan, eta zelaiaren inguruan korrika egiteko pista egokitzea falta da. JOSETXO ARANTZABAL

**ANTZUOLA** > KIROL INSTALAZIOAK

# Eztalako zelaia gertu da oinarri bereziarekin

Gipuzkoan oinarri horrekin egin den lehen futbol zelaia da; belar mota bera nahiko berria den arren, ibarreko beste herri batzuetan ere ipini dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Eztala berritzeko lanak amaitzear daude. Zelaiaren kanpoko aldean korrika egiteko gunea egitea falta da, baina maiatzean hasi ziren zelaia egokitzen eta uztailean amaitu dituzte belar artifiziala ipintzeko lanak.

Ipini duten belarrak baino gehiago, oinarriak du berezitasuna. Futbol zelaietarako erabiltzen den sistema berria da. Belarra ipintzeaz arduratu den Poligras Iberica enpresako Alvaro Perez de Amezagak hauxe esan digu: "Belar artifiziala asfaltozko oinarriaren gainean ipini beharrean, oinarri granulometrikoa erabili dugu; hau da, zimenduaren azpiko hartxintxarrak granulometria zehatza izan behar du, eta hori kontrolatu dugu. Horri produktu berezi bat gehitu diogu, erretxina iragazkorra; oinarri pikortsua egonkortuz, eta asfaltoa saihestuz". Lanen aurrekontua 149.000 euro izan da.

Sistema horrekin zelaia ez da laua izango erabat. "Ez da perfektua izango, baina belar naturaleko zelaiekin antzekotasun handiagoa izango du, naturalagoa izango da", dio Perez de Amezagak. Gaineratu du Gipuzkoan oinarri horrekin egin den lehen futbol zelaia dela. "Belar mota hori erabili da Bergaran eta Arrasaten, esaterako, baina oinarria ez".

Belar artifiziala edo ilea, zapaldu eta berehala jatorrizko egoerara bueltatzen dela esan digu Perez de Amezagak; hortaz, futbol zelaiak itxura naturala izango duela eta asfaltorik eta betunik erabili ez dutenez, "ekologikoagoa" dela.

**KORRIKA EGITEKO PISTA LASTER**

Futbol zelaia gertu da eta kanpoko pista ahalik eta lasterren egitea da asmoa, baina horretarako, makinak gertu egon arte itxoin beharko dute. "Hiru edo lau egunetan egiteko moduko lana da; hortaz, denboraldi berria hasterako Eztala guztiz itxura berrituta izango da", dio Perez de Amezagak.

**ELGETA** > UR PUTZUAK



L.Z.

## Gaur ere zabalik egongo dira ur putzuak Maalan

Hirugarren urtea da Maalako parkean ur putzuak ipintzen direna, eta, ikusitakoak ikusita, badirudi umeak ez direla aspertzen. Eguenean, hilak 16, ipini dituzte aurten, eta, hasiera baten bi egunez bakarrik mantentzea aurreikusten bazen ere, jakin dugu gutxienez gaur arte zabalik egongo direla. Eguraldiak laguntzen badu, udalekuko umeak joango dira goizez, eta arratsaldez herritar guztiendako egongo dira zabalik. Ordutegia honakoa izango da: 15:30etik 19:00etara.

**ARAMAIO** > GOI-TENTSIOKO LINEA

# Webgunean ikusgai dago goi-tentsioko linearen informazioa

Gueñes-Itsaso lotuko duen 400 KV-ko linearen gaineko informazioa herritarren esku dago *www.aramaio.org* webgunean

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak bere webgunean jarri du Aramaio zeharkatuko duen goi-tentsioko linearen aurreproiektua, eta aurreproiektu horren aurrean jarritako alegazioak.

Ingurumen Ministeriotik idatzi bat jaso zuen Udalak. 30 eguneko epea ematen zien, Udalaren iritziz zehazteko zeintzuk diren parametroak, linea hori egin aurretik gauzatuko den Ingurugiro Gaineko Eraginaren Ebaluazioan kontuan hartuko diren parametroak, hain zuzen.

Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailei eskatu zaie txostena egitea. Bi txosten horiek eta Aramaioko Udalak egindako txostena jarri dute webgunean *–www.aramaio.org–*.

**ARAMAIOKO IBILBIDEA**

Aramaiotik pasatuz gero honako ibilbidea egingo luke: Untzilla, Zabola, Durakogain, San Kristobal, Arangioko bidegurutzea eta Oleta. Untzillaren parean, bi aukera jasotzen ditu aurreproiektuak; bata Murugainetik eta bestea Suñatik.



Goi-tentsioko lineak Aramaio zeharkatuko luke. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > ZERBITZUAK

# Udal webgunea berritu dute dinamikoagoa izan dadin

Zerbitzu telematikoa jartzeko asmoa dute herritarrek etxetik egiteko hainbat gestio

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Udalak webgunea berritu du *–www.leintzgatzaga.com–*. Orain hilabete inguru eskatu zion Donostiako DMacroWeb enpresari itxura berria emateko eta webgunearen egitura egokitu du horrek.

Itxura berritzearen arrazoia da webgune dinamikoagoa izatea, politagoa eta herritarrek erabiltzeko samurragoa. Hala, Gatzagako armarria jarri dute sarreran eta argazkiak berritu dituzte. Letra mota aldatu egin dute eta garbiagoa jarri; eta nabarmendutakoen txokoa egin dute, hau da, beste gune batzuetara samur sartzeko nabarmenduta dauden izenburuak jarri.

**UDALAREKIN HARREMANA**

Webgunean dagoen informazio guztia Udal langileek sartzen dute, herritarren interesekoa dela iritzita. Hala, herriko historia kontuak, inguruko paraje eta ibilbideen gaineko berriak eta bertako elkarteen gaineko argibideak dakartza.

Udal jardunaren berri eta Udal zerbitzuen gaineko argibideak ere badaude: zerbitzuak, araudiak eta ordenantzak, lehiaketa deialdiak… Oraingoz ezin da Internet bidez tramitaziorik egin, baina zerbitzu telematikoa jartzeko asmoa daukate eta orduan hainbat gestio egin ahal izango dituzte herritarrek etxetik, errolda agiria eskatu eta espedienteak kontsultatu, esaterako.

# Kirola



**> PILOTA**
Bergarako pilotariak, Euskal Herriko herri arteko finalera > 22



**> ZIKLISMOA**
Fabrizio Ferrari uruguaiarra garaile, Elgetako Mendi Kriteriumean > 24

**> AMAIA DOYAGE**
Amaia Doyage arrasatearra orain dela lau urte hasi zen arraunean. Tolosa-Getaria ontzian dabil aurtengo arraun denboraldian, Euskotren ligan > 27





**GIRO EDERRA** Antolatzaileak pozik azaldu dira, parte hartzeagatik eta zapatuan, egun osoan zehar, Zaldibarren izandako giro bikainagatik. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETO FUTBOLA** > ZALDIBARKO 24 ORDUKO TXAPELKETA

## Google txapeldun, goizaldean jokatutako finalean

**FINALA** Googlek penaltietan irabazi zion Zaldibarko finala Poli&Cia taldeari

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Zaldibarko 24 orduko txapelketari lau ordu falta izan zaizkio aurten 24 ordukoa izateko. Txapelketa zapatu goizean hasi zen, 09:00etan, eta domeka goizaldean, 05:00ak aldera amaitu zen. Azken partiduan, finalean, Google eta Poli&Cia taldeak izan ziren aurrez aurre. Google taldeak penaltietan irabazi zuen, partidua banakako berdinketaren amaitu ondoren. Poli&Cia taldea 0-1 aurreratu zen 5. minutuan Jokin Gorroñogotiak egindako gol bati esker. Partidua amaitzeko zazpi minutu falta zirenean Julen Elortzak banakoa egin zuen penalti bati esker. Kalitate handiko gazte jokalariak ditu Poli&Ciak eta aurrera egin zuten garaipenaren golaren bila, baina Googlekoek berdinketari eutsi zioten. Julen Zaitegi Googleko atezainak zerikusi handia izan zuen horretan. Eta penaltietan ere erabakigarria izan zen haren lana (hasierako penalti tandan berdindu eta azkenean 6-5 nagusitu zen Google). Txapelketako jokalari onenari zegokion saria jaso zuen Zaitegik.

**HAMASEI TALDE LEHIAN**

Esan bezala, goizeko bostak inguru ziren txapelketa amaitu orduko. Zapatu goizetik 16 talde aritu ziren lehian, lau multzotan banatuta. Multzo bakoitzean talde guztiek elkarren aurka jokatu zuten eta sailkapenaren araberako final zortzirenak antolatu ziren. Edozein modutan, lau multzoetako txapeldunak izan ziren finalerdietara iritsi ziren taldeak: Poli&Ciak 2-1 irabazi zion 20 Pacari eta Google 3-2 nagusitu zitzaion Dribling taldeari, Zaldibarko txapelketako liga eta kopa txapeldunari, hain zuzen.

**GIRO BIKAINA ZALDIBARREN**

Antolatzaileak pozik azaldu dira parte hartzeagatik eta lortutako giroagatik. Udako oporren ondoren, urri aldera, abian jarriko dute Zaldibarko txapelketaren ekitaldi berria.



**HAMASEI TALDE** Zaldibarko 24 orduko txapelketan 16 taldek jardun zuten. J.A.



**FINALISTAK** Google eta Poli&Cia taldeko jokalariak finalaren ostean. UXUE

**PILOTA** > EUSKAL HERRIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Zaleen babesak eta pilotarien lanak Bergara final handian sartu dute

Kadete eta gazte mailako partiduak irabazita lortu dute finalerako txartela

Finala Zornotzan izango da Legutioren aurka zapatuan, 10:30ean


Bergarako Igor Igartua pilota jotzeko gertu; atzealdean Beñat Rezusta bikotea. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Izugarria izan zen egubakoitzean Bergarako pilotalekuan bizi izan zen giroa. Jendez lepo bete zen pilotalekua herriko mutilak animatzeko. Eta, partiduek, merezi izan zuten.

2-1eko errenta ekarri zuten Bergararrek Iruñatik; egubakoitzean, kadete eta gazte mailako partiduak irabazita Euskal Herriko Herri arteko Txapelketako finalerako txartela ziurtatu zuten. Hala, datorren zapatuan jokatuko dute finala Zornotzan 10:30ean, Legutioren aurka.

**HIRUTIK BI IRABAZI ZUTEN**
Igor Igartuak eta Beñat Rezustak 9-22 irabazi zuten lehia. Hasieratik hartu zuten aurre markagailuan; 11. tantoa egin zutenen, iruñarrek bi besterik ez zuten egin. Reyes Azkoitia entrenatzaileak argi zeukan kadete mailako partidua irabaziko zutela: "Guk esaten genuen guk ondo jokatuz gero 10 ez zigutela egingo, eta 9 egin digute". Lehenengoa irabazita, bigarrena hasi zuten.

Iruñako ordezko bikoteak jokatu zuen gazte mailan. Hala, uste baino samurrago irabazi zuten Gorka Irizar eta Aritz Rezusta bergararrek: 10-22. Modu horretan, etxeko taldeak finalerako txartela eskuratu zuen.

Finalerako txartela eskuan zutela, hirugarren partiduko emaitzak ez zuen garrantzirik. Hala ere, Muguruza lehengusuak lehia irabaztera atera ziren; euren nahia 3-0ekoa egitea zen. Baina, ezin izan zuten iruñarrak menderatu eta 16-22 galdu zuten.

**ANDER MUGURUZA MIN HARTUTA**
Ander Muguruzak Antiguon jokatu zuen eguenean, eta eskuan min hartuta etorri zen. "Iruñako bikoteak asko jotzen du, batez ere aurrelariak. Hortaz, eskua gaizki baldin badaukazu ez daukazu zer eginik. Hala ere, borrokatu egin dute... Horrek ez dauka izenik", zioen partidu amaieran Azkoitia entrenatzaileak. Benetan pozik eta harro zegoen pilotariek egindako lanarekin.

Datorren asteko finalari begira, Ander errekuperatuko den edo ez begira egongo dira. "Ekipoa osatzeko ez daukagu arazorik, baina irabazteko garantia ez da berdina", zioen Azkoitiak. "Orain arte, Azkoitiarren aurka izan ezik, partidu guztiak irabazi dituzte", azaldu zuen Azkoitiak.

**AUTOBUSA ZORNOTZARA**
"Lehenengo bi lehiak irabazi, eta zen ordua izan arren, jendea ez da etxera joan", esan zuen Azkoitiak. Datorren asteko partiduari begira, zaleen babesa eskatu dute. Hala, autobusa jarri dute Zornotzara joateko. Txartelak 5 eurotan egongo dira salgai frontoian, eguazteneko 22:00ak arte. 636 371 591 edo 670 955 716 telefonoetan ere eska daitezke.

BERGARAKO PILOTARIAK


**Igor Igartua eta Beñat Rezusta**
Kadete mailako pilotariak

## "Hasieratik jarri gara markagailuan aurretik, eta behin hori eginda errazago egiten dira gauzak"

Kadete mailan bergararrek samur irabazi zuten partidua: "Han 14 tanto egin zizkiguten, euren frontoian jokatu zutelako; baina espero genuen hemen ondo jokatuz gero nahiko samur irabaztea". Igartuak gaineratu zuen Iruñan Rezusta ez zela ondo ibili, baina "asko jokatzen" duen pilotaria dela. Hala, egubakoitzean hasieratik ibili ziren gustura bergararrak: " Hasieratik jarri gara markagailuan aurretik, eta behin hori eginda errazago egiten dira gauzak. Erdialdean akatsen bat izan dugu, baina ez dugu arazorik izan. Gustura gaude egindakoarekin".


**Gorka Irizar eta Aritz Rezusta**
Gazte mailako pilotariak

## "Lagun mordoa etorri dira, frontoia bete egin da eta horrela gustura jokatzen da. Eskertzekoa da"

Iruñean 22-2 galdu ondoren, egubakoitzean samur irabazi zuten Bergarako gazte mailako pilotariek. "Ez dugu aurreko bikotearen aurka jokatu, beste batzuk etorri dira. Esan digutenean beste batzuk zetozela, poztu egin gara. Uste dut ondo jokatu dugula, hobeto egin zitekeen baina gustura geratu gara egindakoarekin. Gainera, lagun mordoa etorri dira partidua ikustera eta hori eskertu egiten da. Frontoia bete egin da eta horrela gustura jokatzen da", esan ziguten Irizar eta Rezusta gazte mailako pilotariek partidu amaieran.


**Ander Muguruza eta Eneko Muguruza**
Senior mailako pilotariak

## "Hasieran tanto asko egin digute, batez ere sakez; baina, gero markagailuari itxura ematea lortu

Finalerako txartela eskuan zutela atera ziren pilotalekura Muguruza lehengusuak. "Lasaitasuna eman digu jakiteak finalerako sailkatuta geundela. Zerbait jokoan egongo balitz ez genuke horrenbeste tanto egingo", zioten. Ander eskuan min hartuta zegoen, eta horregatik ez zen gustura geratu egindako lanarekin. "Hasieran tanto asko egin digute, batez ere sakez. Gero, markagailuari itxura ematea lortu dugu. Bestalde, izugarria da zenbat jende etorri den. Afizionatu mailako partidu batean horrenbeste jende sekula ikusi barik geunden", zioen bikoteak.

**ARETXABALETA** > EMAKUMEZKOEN FRONTENIS TXAPELKETA

# Oihana Matak eta Leire Vallek irabazi dute frontenis txapelketa

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA
Egubakoitzean, arratsaldez, emakumezkoen frontenis txapelketako finala jokatu zen Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Giro bikaina izan zen harmailetan: Oihana Mata-Leire Valle eta Lore Martinez-Rosa Ojuel Aretxabaletako bikoteak izan ziren aurrez aurre eta bikote bakoitzaren aldekoek ez zuten animuekin etsi partidu osoan zehar.

**FINAL PAREKATUA**
Finala, gainera, parekatua izan zen. 18 tantora berdinduta egon ziren finalistak, baina azken txanpan Oihana Matak eta Leire Vallek eraman zuten txapelketa, zazpi tanto jarraian egin eta gero. Edozein modutan, galtzaileak ere oso pozik azaldu ziren lortutakoarekin. Izan ere, emakumezkoen kirola bultzatzea zen txapelketaren helburuetako bat eta alde horretatik aurreikuspen guztiak gainditu dira: 18 bikotek hartu dute parte Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako txapelketan. Ekainaren 9an hasi zen txapelketa eta finalistek sei partidu jokatu behar izan dituzte finalera heltzeko. Egubakoitzean, hilaren 24an, afaria egingo dute partaide guztiek.

Dagoeneko urri aldean antolatuko duten txapelketa hasi dira gertatzen. Era berean, udaberri partean, areto futboleko txapelketa antolatzeko asmoa ere ba dute.




Ezkerrean, Leire Valle eta Oihana Mata txapeldunak; eta eskuman, Lore Martinez eta Rosa Ojuel azpi-txapeldunak, eskuratutako garaikurrekin. JOSETXO ARANTZABAL



Oihana Kortazar. GOIENKARIA

**MENDI LASTERKETA**

## Oihana Kortazar, bosgarren Italian

Kilometro bertikalean 46 minutu eta 59 segundoko marka egin zuen

**E.M.** > BERGARA
Oihana Kortazar lasterkari elgetarra bosgarren tokian sailkatu zen Europako kilometro bertikaleko txapelketan, ostiralean Italian, Dolomitetan jokatutako proban. 2,2 kilometroko proba zen eta tarte horretan 1.000 metroko desnibela gainditu beharra zeukaten partaideek. Kortazarrek 46 minutu eta 59 segundoko marka egin zuen, Antonella Confortola irabazlearengandik 4 minutu eta 43 segundora, hain zuzen. Monica Ardid katalana hirugarren sailkatu zen, 45:27 denborarekin. Atzo, berriz, 22 kilometroko *skyrace* lasterketan hartu zuen parte Kortazarrek.

**ESKORIATZA** > KIROL ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

# Eskoriatza Kirol Elkartea, 50 bazkide gehiagoren bila

50 bazkide gehiago izateak 2.250 euro gehiagoko sarrera suposatuko luke; 351 euroko defizita izan dute aurten

**E.M.** > ESKORIATZA
Eskoriatza Kirol Elkartearen helburuetako bat hurrengo denboraldiari begira bazkide kopurua handitzea izango da. Manolo Muñoz presidenteak eta Javier Corbal presidenteordeak asteleheneko batzar orokorrean jakitera eman zutenez, 250 bazkide ditu elkarteak gaur eta 300 bazkide izatera heltzea da asmoa. 50 bazkide gehiago izateak 2.250 euro gehiagoko sarrera suposatuko luke, bazkide kuota 45 eurokoa da-eta. 2009-2010 denboraldirako aurreikusitako aurrekontua 71.788 eurokoa da. Areto futboleko sailak hartuko du zatirik handiena; izan ere, Euskal Ligan lehiatzeak bidaia luzeagoak egin behar izatea ekarriko du. Bidaien %75 inguru mikrobusean egin behar izango ditu taldeak.

**DEFIZIT TXIKIA GAINDITZERA**
Amaitu berri den denboraldiari dagokionez, 62.449 euroko aurrekontua izan du Eskoriatza KEk; eta diru sarrerak, berriz, 62.097 eurokoak izan dira. Defizita, beraz, 351 eurokoa izan da. Muñoz eta Corbalekin batera, honako hauek izango dira zuzendaritzan: Maria Romera (idazkaria); Luismi Lekuona (diruzaina); Jose Gomez (publizitatea), Fernando Raso (saskibaloia); Iñaki Corral (areto futbola); Joseba Iñurrategi (pilota); eta Garbiñe Uribe (mendi saila).

> TXRRINDULARITZA

### Iker Eskibel eta Alex Aranburu oñatiarrak Bartzelonan izan dira

Kadete mailako Espainiako Txapelketa korritu zuten zapatuan Iker Eskibel eta Alex Aranburu oñatiarrek. Montjuic inguruan 24 kilometro inguruko ibilbidea izan zuten; 59 gaztetxok amaitu zuten proba: Eskibel 27. tokian sailkatu zen eta Aranburu 48. iritsi zen. Lizarralde Kirolak taldean dihardute biek.

> BERGARA

### Kirol taldeendako dirulaguntza eskaera, irailaren 21erako

Bergarako Udaleko kirol zerbitzuak kirol entitateendako 2009. urteko dirulaguntza deialdia egin du. Dirulaguntza hauek Bergarako kirol entitateei zuzenduta daude. Diru laguntza eskaerak aurkezteko epea irailaren 21ean amaitzen da. Argibide gehiago: *http://www.bergara.net/News/1247134402*

> MENDI BIZIKLETA

### Mendi bizikleta irteera zapatuan Besaideren eskutik

Besaide mendi elkartearen eskutik, mendi bizikleta irteera izango da hurrengo zapatuan, hilaren 25ean. Araotz ingurura egingo dute aipatutako irteera, 09:00etan Garibaitik.

Irteeran parte hartu nahi duenak ondoko helbide elektronikoan eman dezake izena: *besaidemtb@hotmail.com*

**Pamiela** argitaletxeak, **Kulturaren aldeko Euskal Fundazioa**ren babesarekin
**JUAN ZELAIA**
**IX. Saiakera saria**
antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.
**Saria: 9.000 €**
Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.
**Irailaren 30a arte**
Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauak: www.pamiela.com


**ELGETAKO MENDI KRITERIUMA** > 25. EDIZIOA

# Azkeneko 500 metroetan ihes eginda irabazi zuen Ferrarik

Lasterketa borrokatua izan zen Elgetakoa; hasierako puntuan zeuden 111 ziklistetatik 38 bakarrik iritsi ziren amaierara

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ELGETA

Azkeneko 500 metroetan erabaki zen lasterketa atzo. Elgetarako bidean, azkeneko maldan gora, Fabrizio Ferrarik (Caja Rural) aurre hartu zien gainerako txirrindulariei eta bakarrik iritsi zen helmugara. Ferrari uruguaiarrak 3:04:57ko denbora egin zuen; atzetik sartu zen, bi segundora, Cafes Baque taldeko Carlos Juez.

**EGURALDIARI BEGIRA**

Euria zen Elgetan lasterketa hasi zenean. Hori horrela, lasterketa amaieran Victor De la Partek aitortu bezala, gogo gutxirekin hasi zuten lasterketa txirrindulariek. Antolatzaile taldea ere beldur zen erorikoak egongo ote ziren. Baina, lasterketan zehar erorikoren bat egon zen arren, inork ez zuen minik hartu. Gainera, berehala atertu zuen.

Txirrindulariek Elgetatik Elorriorako bidea hartu zuten. Atxondoko bailara zeharkatu ostean Areitioko gaina hartu zuten; handik, Eibarrera eta Eibarretik Bergararako bidea hartu zuten. Lehenengo kilometroetan tropela batuta joan zen; ihesaldi ahaleginak egon ziren, baina antzuak. Lehenengo ihesaldia Angiozarrerako bidean egin zuten. Asentzioko gainean lehenengoa izan zen Egoitz Murgoitio Naturgas Energi taldeko txirrindularia.

DATUA

**111**

**ZIKLISTA**

Lasterketa hasi zuten ziklistak 111 izan ziren, amaitu zutenak, ostera 38 besterik ez. 120 kilometrotako lasterketa da Elgetako kriteriuma. Irabazleak, bataz beste, 38,93 kilometro orduko egin zuen.

**MENDIKO SARIA**

Ihes egindako taldetxoan Victor De la Parte zegoen, Mendiko Sariko garailea. "Hasieratik ibili naiz ihes eginda, ia lasterketa amaitu arte, baina azkenean harrapatu egin gaituzte", azaldu zuen De la Partek. Bere helburua lasterketa irabaztea zela aitortu zigun, baina ahalegindu arren, ezin izan zuen. Hala ere, pozik zegoen taldekide bat izan zelako garailea. Asentzioko gaina bigarren aldiz 94. kilometroan igo zuten; orduan, Victor De la Parte izan zen lehenengoa, ondorioz Langarika Saria irabazi zuen.

**AZKENEKO METROETAN, IHES**

Victor De la Partek ez zuen amore eman; hala, Elgetarako bidean, azkeneko kilometroan ihes egin zuen, baina harrapatu egin zuten.

Ondorioz, azkeneko metroetan egindako ahaleginari esker Fabrizio Ferrari sartu zen lehenengo helmugan. Uruguaiarrak aitortu bezala, bigarren izan zen Carlos Juezen gurpilean egin zituen azkeneko kilometroak.

Behin lasterketa amaitutakoan sariak banatu zituzten Elgetan. Ferrarik garailearen maillota, lore sorta, garaikurra eta eskopeta jaso zituen; Victor De la Partek Mendiko Sariaren garaikurra; eta, Egoitz Murgoitiok borrokalarienaren saria.

Gainera, Ferrarik Euskalduna Sariko maillota jantzi zuen beste behin Euskal Herriko federazioko presidentearen eskutik.

**MANDALUNIZEK, AGUR**

Aurten 25 urte bete ditu Elgetako lasterketak. Urte guzti hauetan Emilio Mandaluniz izan da lasterketako presidentea, eta antolatzailea. Aurten, presidente kargua uztea erabaki du, gazteei paso ematea, alegia.

Mandalunizek antolatzaileen eta herritarren esker ona jaso zuen. "Ez nekien horrelakorik prestatu didatenik", esan zuen amaieran. "Aurrerantzean laguntzeko prest egongo naiz, baina ez lehenengo ilaran", azaldu zuen. Elgetako lasterketak duen ospeaz harro zegoen Mandaluniz: "Urte hauetan izen handiko lasterketa bihurtu da".

## 25. Elgetako Kriteriuma

**LASTERKETAKO SAILKAPENA**

| | |
|---|---|
| 1. Fabrizio Ferrari (Caja Rural) | 3:04:57 |
| 2. Carlos Juez (Cafes Baque) | 3:04:59 |
| 3. Pello Bilbao (Naturgas) | 3:05:08 |
| 4. Ibon Zugasti (Azysa) | 3:05:23 |
| 5. Victor De la Parte (Caja Rural) | 3:05:23 |
| 6. Xabier Zabalo (Naturgas) | 3:05:23 |
| 7. Jon Garate (Bidelan) | 3:05:30 |
| 8. Aitor Aretxabala (Balmaseda) | 3:05:34 |
| 9. Higinio Fernandez (Cueva) | 3:05:41 |
| 10. David Abal (Cueva) | 3:05:45 |



Taula gainean saridunak, Udaleko ordezkariak, Euskal Herriko txirrindularitza elkarteko ordezka


Fabrizio Ferrari Elgetako helmugara sartzen. JOSETXO ARANTZABAL.


Asentzioko gainean, lehenengo itzulian, Egoitz Murgoitio izan zen lehena. J.A.


Emilio Mandalunizek omenaldia jaso zuen Rebeka Uberaren eskutik. A.E.




ariak, Renault-eko ordezkariak eta antolatzaileak. A. EZKIBEL

**Fabrizio Ferrari** > Irabazlea

## "Astebeteko atsedena hartu dut eta dirudienez on egin dit atsedenak"

**A.E.** > ELGETA

**Fabrizio Ferrari uruguaiarra azkarrena izan zen atzo Elgetako helmugan. Lasterketa ondo ezagutzen duen txirrindularia da; iaz, esaterako, laugarren postuan geratu zen. Elgetako Kriteriuma irabazteaz gain, Euskalduna Sariko liderra ere bada Ferrari.**



A.E.

**Zorionak garaipenagatik. Espero zenuen horrelako lana egitea?**

Eskerrik asko. Egia esan, urduri etorri gara lasterketara; esan digute Azysa taldea gure aurka zetorrela, eta beldur horrekin etorri gara. Gure aurkari zuzenak dira. Baina, zorionez, eurei ez zaie ondo atera lasterketa, bai ordea guri. Egia esan, niretako sorpresa izan da lasterketa irabaztea. Astebeteko atsedena hartu dut, eta dirudienez on egin dit atseden hartzeak. Izen handiko lasterketa irabazi dut.

**Ihesaldi askoko lasterketa izan da. Nola ikusi duzu lasterketa barrutik?**

Mugimendu handia izan duen lasterketa izan da. Ihesaldi ahalegin asko egon dira. Azkenekoan, taldekide bat sartu dugu ihesaldian, eta modu horretan lasterketa kontrolatzeko gauza izan gara. Ihesaldian azkeneko metroetan jo dugu.

**Noiz ikusi duzu zure burua lasterketa irabazteko gauza?**

Lasterketa guztian zehar gogor ikusi dut nire burua, baina uste nuen aurrean ihes eginda zihoan taldea helmugara iritsi zitekeela. Gero, jendea atzean gelditzen joan da eta ikusi dut aukerak zeudela. Esan behar da, Carlos Juezen gurpilean joan naizela. Hortaz, lasterketaren lan handiena berak egin du; berarentzat zoritxarrez, eta niretzat zorionez. Baina, txirrindularitza horrelakoa da.

**Zer azpimarratuko zenuke?**

Oso lasterketa polita da, jende asko etortzen da ikustera eta izen handia du. Ona da niretzat horrelako lasterketa bat irabaztea.

Salneurri gomendatua Ford Kuga Trend 4x2 TDCi 136ZP. BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga, 2000E plana eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria izakinak agortu arte. Ikusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena. Kuga gama, batez besteko kontsumoa: 6,3-6,4 l/100km. $CO_2$ igorpenak: 165-169 g/km.






Gazte mailako 81 txirrindularik hartu zuten parte zapatuko lasterketan eta 77 iritsi ziren helmugara. J. ARANTZABAL




Imanol Arizmendi, jasotako trofeoarekin. E.M.

**TXIRRINDULARITZA** > 18. SANTA MARINA SARIA

# Imanol Arizmendi azkoitiarra, azkarrena Bergarako helmugan

Arizmendi Gabriel Domingori, Oier Iraolagoitiari eta Jon Iriarteri nagusitu zitzaien esprintean

Lokatza taldeko Xabier Arantzeta zortzigarrena izan zen, irabazlearengandik 29 segundora

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Lokatza taldeak antolatuta, Santa Marina Sariaren 18. ekitaldia jokatu zen zapatuan. Gazte mailako 81 txirrindulari abiatu ziren 16:00etan ibilbideko 86 kilometroak betetzeko asmoz. Ibilbide laua zen (Soraluzeko barianteko *gaina* bi aldiz gainditu beharra izan zuten bakarrik) eta txirrindulariek eskertu zuten, bero egiten zuen-eta zapatuan. Txirrindulari gehienak (77 lagun) iritsi ziren helmugara 18:10ak aldera.

Helmugan, esprintean, Lan Mobel taldeko Imanol Arizmendi izan zen azkarrena. Denbora berean sailkatu ziren Gabriel Domingo (Comdibal 2000), Oier Iraolagoiti (Galdiano Eraiku) eta Jon Iriarte (Lan Mobel). Bost segundora David Alvarez eta zazpi segundora Jon Dominguez eta Martin Eslava iritsi ziren. Xabier Arantzeta izan zen etxeko lehena, 8. tokian, 29 segundora, hamabi lagunez osatutako taldetxoari aurrea hartuz; ondoren tropel nagusia etorri zen.

**TALDEKA, LAN MOBEL NAGUSI**

Lokatza taldeko 40 bat lagunek jardun zuten lasterketaren antolakuntzan. Esan bezala Arantzetak jaso zuen Lokatzako onenari zegokion saria eta taldekako sailkapena Lan Mobelek eraman zuen. Azpeitiko taldeak garaipen bikoitza erdietsi zuen.

**Imanol Arizmendi** > Lan Mobeleko txirrindularia

## "Ihesaldian sartu garenok kolaboratu egin dugu helmugaraino iristeko"

**E.M.** > BERGARA

**Gazte mailan bigarren denboraldia egiten dabil Imanol Arizmendi azkoitiarra. 17 urte ditu eta 9 urterekin hasi zen txirrindularitzan. Zapatuan aurtengo denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen Bergaran.**

**Taldetxo batekin ihes eginda, helmugara iritsi eta esprinta irabazi.**

Bai, Soraluze igaro eta gero, Elgoibarrera bidean, zazpi lagunek egin dugu hanka. Katalanak izan ezik, guztiok kolaboratu dugu ihesaldian. Diferentziari eutsi diogu helmugaraino eta esprintean irabaztea lortu dut. Indarrez ondo nengoen eta poz handia hartu dut lasterketa irabaztean. Horrelako aukerak aprobetxatzea ez da erraza izaten.

**Ibilbidea zelakoa iruditu zaizu?**

Nahiko laua zen, nahiz eta aldapa pare bat egon. Niri horrelakoak gustatzen zaizkit; aldapatsuegiak ez ditut gustuko.

**Txirrindulariok oporrik gabe geratzen zarete, ala?**

Bai, urrira arte ez gara gelditukо. Denboraldia luze samarra egiten da, baina zela gustura ibiltzen garen, ba ez da horren gogorra... Orain, Nafarroako Itzulia korrituko dugu, lau egunez.

**Nori dedikatzen diozu gaurko garaipena, bada?**

Aitonari, Manolo Larrañagari. Loreak amari emango dizkiot eta kopa, niretako.

**GAZTE MAILA** > ASTURIASEN JOKATUKO DA UZTAILAREN 26

# Arantzeta, Espainiako txapelketara

Selekziora joatea sari moduko bat dela dio; hamar lagun dira Euskadiko taldean

**E.M.** > BERGARA

Lokatza taldeko Xabier Arantzeta txirrindulari antzuolarrak (18 urte) Espainiako gazte mailako txapelketan hartuko du parte domekan, uztailaren 26an. Jon Aiestaran eta Iker Leonet hautatzaileen esanetara, hamar lagunek osatuko dute Euskadiko taldea. Arantzetaren hitzetan, "ziurrenik Haritz Orbe eta Ibai Salas bizkaitarrendako lan egitea tokatuko zait, baina pozik nago Asturiasera joatearekin. Horrenbeste entrenatu eta gero, sari moduko bat da hau". Orain dela bi urte kadete mailako Espainiako Txapelketan ere izan zen.

Ostegunean abiatuko dira Asturias aldera eta lasterketa, esan bezala, domekan jokatuko da, Mieresen. Aurreko ostegunean selekziokideekin entrenatu zen Arantzeta, Donostia eta Goizueta artean. Aurtengo denboraldian lasterketa bakarra irabazi du antzuolarrak, Lazkaon, maiatzaren 2an. Bi eguneko proba zen Lazkaoko Mendi Kriteriuma eta 3. sailkatu zen sailkapen orokorrean. Asturiasen korritu ondoren, atseden hartuko du Arantzetak, eta abuztu erdialdean ekingo dio berriz korritzeari.




Xabier Arantzeta txirrindulari antzuolarra. E.M.

> KADETE MAILA

### Eneko Lizarralde hirugarren Gipuzkoako txapelketan

Zapatu goizean kadete mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Ordizian. Bergarako Lokatza taldeko Eneko Lizarraldek hirugarren postua eskuratu zuen eta Hodei Orobengoa taldekidea bosgarrena izan zen. Unanue ordiziarra izan zen irabazlea, helmugara ihes eginda iritsita. Jarraian sartu ziren taldetxoan zeuden bi txirrindulari bergararrak. Iñigo Larrañaga Lokatza taldeko zuzendaria pozik zegoen emaitzarekin eta denboraldian zehar Lokatzakoek erakutsitako nagusitasunarekin: bederatzi lasterketa irabazi dituzte.

Zapatuan, uztailaren 25ean, Euskadiko txapelketa jokatuko da Berangon.

Amaia Doyage > Arraunlaria

# "Lana ondo eginez gero, irabazteko gauza garela erakutsi dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Amaia Doyage arrasatearra orain dela lau urte hasi zen arraunean. Tolosako taldean dabil, eta esan behar da hainbat sari irabazi dituela, tartean Zaragozako Expon jokatutako bandera. Orain, Euskotren emakumezkoen traineru liga sortu berri dute. Doyagerekin izan gara liga berriaz eta emakumeek arraunean duten egoeraz berbetan.**

**Aurten, Tolosak getariarrekin batera atera duzue ontzia.**

Bai, aurten Tolosa-Getaria da gure ontzia. Entrenatu Getarian egiten dugu.

**Orain astebete hasi zenuten Euskotren liga. Zenbat taldek parte hartzen duzue?**

Nahiko nahasmen sortu da Euskotren ligarekin. Aurreko astean hasi zen, liga eta zortzi estropada jokatuko dira. Selekzioka jokatuko den liga izango da. Galiziako selekzioa, Kataluniako selekzioa, Bizkaiko selekzioa eta Gipuzkoako selekzioa ibiliko gara. Gertatzen dena da Gipuzkoan hiru ontzi daudela: Hondarribia, Zumaia eta Tolosa-Getaria. Hortaz, gu hiruron artean banatu behar dugu lana eta bi estropadetan Gipuzkoa ordezkatzea egokituko zaigu. Txandaka ibiliko gara.

**Baina liga horretaz gain, beste estropada batzuk ere jokatzen dituzue?**

Bai, beste estropada solte batzuk izaten ditugu. Adibidez, ARCko 2. mailako beste estropada batzutan parte hartu izan dugu. Donostian eta Zumaian jokatutako estropadak irabazi egin ditugu, eta aste bukaeran Orion jokatuko dugu.

Datorren astean, uztailaren 24an eta 25ean, berriro ere Euskotren liga jokatuko litzateke.

**Aurten sortu da Euskotren liga. Zein da helburua?**

Esango nuke helburua emakumezkoen estropadei indarra ematea dela. Iaz, esaterako, nobedadea izan zen Zaragozako Expon jokatu zen bandera. Orduan ikusi zuten emakumezkoen arraunarekin zerbait egiteko modua bazegoela. Hala, txapelketak antolatzen hasi ziren iaz: bai Gipuzkoakoa eta baita Euskadikoa ere. Gainera, Kontxako bandera jokatu zen, arraun munduko puntako txapelketa izan zen. Irudi ona eman genuen, eta horren harira antolatutako liga da Euskotren liga.

Esan behar da, liga berria dela, baina hainbeste estropada antolatzea ere nobedadea da.

**Ze asmorekin hasi duzue liga hau? Zein da zuen helburua?**

Ahal den eta lan txukunena egitea da gure asmoa. Ikusi dugu lana ondo eginez gero, irabazteko gai garela; hortaz, gure helburua hori izango da.

Egia esan, guretako Euskotren liga honek ez dauka garrantzia handirik. Izan ere, ez dugu beti guk jokatzen, hiru talderen artean egiten dugu lana. Garrantzia emango diogu bai Gipuzkoako eta baita Euskadiko txapelketei ere. Eta, nola ez, Kontxako bandera ere garrantzia handia hartuko duen estropada izango da.

**Iaz Kontxan galiziarrak izan ziren garaile, eta Euskotren ligan ere galiziarrak daude aurrealdean. Nolako taldea da?**

Galiziako selekzioan dauden neskak iaz Kontxako bandera irabazi zuten neska berak dira: Rias Baixas taldekoak, hain zuzen. Euskotren ligako lehenengo estropadan, zapatuan, guk bost segundo atera genizkien; baina, domekan zumaiarrak hirugarren postuan geratu ziren. Hortaz, Galiziako selekzioa dago lehenengo postuan.

**Kontxako banderari begira jarrita zaudete dagoeneko?**

Ez, oraindik ez. Nik uste dut abuztuan jarriko garela entrenamendu bereziak egiten. Uztailean estropada asko ditugu; horregatik, orain hilabete hauetako estropadetan zentratuta gaude.



Zapatuan Orion izan zuen estropada Amaia Doyagek. IRATI AGIRREAZALDEGI

**"Hiru talderen artean ordezkatuko dugu Gipuzkoa; txandaka egingo dugu"**

**"Ligaren helburua emakumezkoen estropadei indarra ematea da"**

**Nola ikusten duzu emakumezkoen arrauna? Aldaketak egon dira azkeneko urteotan?**

Oso poztekoa da emakumeei aukera hau ematea, eta liga hau sortzea.

Bestalde, esan behar da oraindik nabaritzen dela emakumezkoetan errodaje falta dagoela, oraindik ibili beharra eta hobetu beharra dagoela. Hala ere, erakutsi dugu ikuskizuna emateko moduan gaudela.

**"Oraindik nabaritzen da emakumezkoek errodaje falta dugula, ibili beharra daukagu"**

**"Guk denboraldia abenduan hasi genuen batelekin; orain traineruak hasi dira"**

**Ikusleen aldetik ze erantzun jasotzen duzue?**

Arraun munduan sartuta dagoenak badaki emakumezkoen egoera zein den; eta, badaki guk abenduan hasten dugula denboraldia, eta ez orain, jende askok uste duen bezala. Orain, traineru denboraldia hasi da, baina orain arte batelean ibili gara.

Jendeak badaki ze lan egiten dugun eta uste dut baloratzen dutela gure lana.

**PREBENTZIOA** > DROGAK NERABEZAROAN

# Nerabeak drogekin kontaktua izatea eta gurasoen ardura



Mutiko bat zigarroa pizten. JAMES ALBY

Seme-alabekin konfiantza eta komunikazioa izatea garrantzitsua da drogen inguruan hitz egiteko ere

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Nerabezaroak eta drogak lotu ditu Maite Aizpirik, Prebentzio teknikariak, bere azken artikuluan. Hark dioenez, "nerabezaroan, neska-mutilak norbere identitatea eraikitzen hasten dira gurasoengandik urrunduz. Garai horretan, lagun taldeak garrantzi handia hartzen du, nerabeek helduengandik datorrena zalantzan jartzen dute eta esperientzia berrien bila hasten dira; esperimentazio horren inguruan ulertu behar dira lehenengo droga kontsumoak (tabakoa, alkohola, kalamua...). Nerabezaroko aldaketa horiek familian ere aldaketak sortzen dituzte eta, zenbaitetan, gurasoentzat ere ez da garai erraza izaten, seme-alabek dagoeneko ez dutelako etxean gauza handirik kontatzen, arauak direla eta eztabaidak ugaritzen direlako edot seme-alabak esandakoaren inguruan zalantzak dituztelako: "Esandako lekuan ote dago? Zertan ibiliko dira? Drogaren bat kontsumituko du?". Egoera horiek egonezina, haserrea edo beldurra sortzen dute batzuetan, eta emozio horietatik abiatzen garenean gerta daiteke seme-alabekin nahi genukeen moduan ez jokatzea".

Seme-alabekin konfiantza eta komunikazioa izatea garrantzitsuak direla uste du Aizpirik.

KONTUAN HARTZEKOAK

**> SEME-ALABEKIN DROGEN INGURUAN HITZ EGITEA**
Garrantzitsua da beste gaien inguruan ere haiekin komunikazioa izatea; bestela, nekez lortuko dugu drogen inguruan hitz egitea.

Gure jarrerak lasaia izan behar du, naturaltasunez hitz egin.

Hitz egitea ez da itaunketa egitea. Askotan, entzunez galdetuz baino informazio gehiago atera dezakegu, drogekiko zer jarrera duen, informazio egokia duen...

**> BIZITZARAKO GAITASUNETAN HEZTEA**
Seme-alabekin drogen inguruan hitz egitea eta informazioa ematea ez da nahikoa. Eguneroko bizitzan topo egingo duten zailtasun edo arrisku egoerei aurre egiteko gaitasunak garatzen lagundu behar diegu. Horretarako, balioetan heziz, nortasun autonomoa gara dezaten sustatuz eta erabakiak hartzen eta horien erantzule izaten erakutsiz.

**> KONTSUMOA HASITA DAGOENEAN**
Dagoeneko kontsumitzen badu, debekatzearekin agian ez dugu gauza handirik lortuko, akaso ezkutuan kontsumituko du. Hobe da: gure kezkak adieraztea, egiten duten kontsumoari buruz pentsaraztea, izan ditzaketen ideia okerrak argitzea, arriskuen inguruko informazioa ematea, kontsumo arduratsua egiteko gomendioak egitea...




Ipuin kontaketan irakurriko dituzten bi liburuen azalak. GOIENKARIA

**SEXUALITATEA** > 'EGIN DAKIZUNA'

## Umeei sexuaz hitz egiteko ipuin kontaketa Arrasaten

Ugalketaz eta familien aniztasunaz berba egingo dute 4 eta 8 urte arteko umeekin

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Umeekin sexuaz hitz egiteko ipuin kontaketa egingo dute martitzenean, uztailak 21, Arrasaten, Biteri plazan. Ugalketa zer eta nolakoa den eta egun dauden familia mota ezberdinei buruz hitz egiteko, bi ipuin kontatuko ditu Mirari Arando sexologo arrasatearrak, *Egin dakizuna* programaren barruan.

**UGALKETA ETA ANIZTASUNA**
Ugalketaren inguruan hitz egiteko, adibidez, *Nondik gatoz?* izeneko ipuina kontatuko du Arandok. "Ugalketa ez dela misteriotsua erakutsi gura diet umeei, naturala dela. Liburu honetan, neskatila bat ageri da, ispiluaren aurrean biluzik, bere gorputzeko atalak ukitzen. Heldu bati galdetzen dio bera nola sortu den, nondik datorren, eta helduak ugalketaren berri ematen dio. Espermatozoide eta obuluen bategiteaz gain, sentimenduak, erreakzioak, zakila tentetzea, alua asetzea... afektibitatea ondo islatzen da", dio Larraitz Arandok, Arrasateko sexologia bulegoko teknikariak.

Aniztasunaz hitz egiteko, berriz, *Elkarren gustukoak gara* liburua aukeratu dute. "Familia heterosexualak eta homosexualak agertzen dira, bai, baina liburuak erakusten du, adibidez, gizon txiki potolo batek emakume altu argal bat maite dezakeela", dio Arandok.





GOIENKARIA

## Haurdun dauden emakume sortzaileak

Kalabaza itxura, baloiaren forma, oskoletik laster jaioko den txita baten irudia edo arrainontziaren antza. Horrelaxe ikusten dute haurdun dauden emakume batzuek euren sabela, eta irudimena erabili dute. Eta irudimenarekin batera, margoak eta margolariak ere topatu dituzte euren sabelak margotzeko, esku oneko margolariak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> GRAFITI CLASSICS**
Sokazko instrumentuekin lagunduta, ikuskizun freskoa eta umoretsua egin zuten Arrasaten > 30



**> BILL LYERLY**
Blues elektrikoaren erakustaldia egin zuen Estatu Batuetako musikariak Bergaran > 30



**> ERREKAN GORA**
Giroux eta Mahjun beteranoen kontzertuak eman zion hasiera Eskoriatzako jaialdiari > 31



Ikusleek (adin eta jatorri askotakoak) ederto gozatu zuten Estricalla taldearen kontzertu labur, baina intentsuarekin; argazkian, Fer Apoa ikusleak alboan dituela. JOSETXO ARANTZABAL

# Bat-batekotasuna eta indarra, galdu ezin diren altxorrak

**NON:** Arrasateko Gaztetxean.
**EGUNA:** Egubakoitza, uztailak 17.
**ZENBAT JENDE:** 200 bat lagun.
**IRAUPENA:** Lau bat ordu.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Kontzertu bitxia, ohituta gaudenarekin alderatuta eskaintza ezohikoa batu zuena. Eskertzekoa da bestelako taldeak ikusteko aukera izatea.

Lehenik eta behin, Berlindik etorritako Blitztraktor. 90eko hamarkadan hainbatetan bisitatu gintuzten Fuck You Crew taldeko Stevek eta Ao Wollok-eko Dedeek beste bi mutilekin batera talde berria egin dute. Iraganeko fusioa alboratu, eta metal kutsua daukan punk-hardcorea egiten dute alemanez.

Buzoekin, gogor aritu ziren, baina igarri zen taldeak denbora gutxi duela indarrean, eta ez zuten espero genuen ikuskizuna eman agertoki gainean.

**KOMUNIKATZAILE ONA**
Atsedenaldi baten ostean, El Corazon del Sapo eta Kuraia taldeen sortzaile Fer Apoak eta Kantabriako Kloakao taldeko kideek sortu berri duten Estricalla igo zen agertokira. Euskal Herrian ematen zuten bigarren kontzertua izan zen eta jakin-min handia zegoen (Iparraldetik ere etorri ziren ikusle batzuk).

Hau ere talde hasi berria bada ere, aspaldian ikusi dugun hardcore emanaldi indartsuenetako bat eman zuten. 40 minutu pasatxoan kaleratu berri duten *Gimnasia revolucionaria* laneko pieza zuzen-zuzenak eta hainbat bertsio eskaini zituzten. Horien artean, han batutako askok irrikaz oroitzen duten El Corazon del Saporen *Stop control, Matarifes* eta beste; Los Crudos, Bad Brains eta RIPen kantu bana, eta baita La Perrera eta Cosmic Psychosen kantu rockeroagoak ere; azken horiek ustekabea askorendako.

Fer Apoa beti izan da *frontman* eta abeslari indartsu eta komunikatzailea eta hala jarraitzen du, hardcorea, erresistentzia eta amorrua errebindikatzen. Modu berean, alboan dituen musikari kantabriarrak ere oso ondo aritu ziren, batez ere bateria jotzailea. Guztien artean hardcorea bizi-bizirik dagoela erakutsi zuten, euskarazko, gaztelerazko eta ingelesezko kantuekin. Halako estiloak existitzen direla erakutsi gura diete gazteei.

**MATERIAL RECHAZADO, DOTORE**
Arrasateko Material Rechazado punk taldeak hartu zuen lekukoa. Diskoa dute eta dezente hobetu dira; serioago hartzen dituzte kontzertuak eta ziurtasun handiagoa dute. Kantu propioez gain, RIP, Eskorbuto eta La Banda Trapera del Rioren bertsioak.

Bukatzeko, Fight To Life oi! talde gaztea Erguindik (Arrasate). Street-punk ildoan, Decibelios gogora ekarri ziguten.

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian.
**EGUNA:** Egubakoitza, uztailak 17.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta laurden inguru.



The Graffiti Classic. Ezkerretik eskuinera: Stephen Kennedy, Cathal O'Duill, Alice Pratley eta Frances Grime. I.A.

**MUSIKA ETA UMOREA** > THE GRAFFITI CLASSICS

# Musika baino askoz gehiago

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Abisatuta geunden The Graffiti Classics taldearen *16 cuerdas con ritmo* ikuskizuna ezberdina izango zela, musikaz gain umorea izango zela protagonista, ikusleekin asko jolasteko ohitura zutela... Bai, egubakoitzean Amaia antzokira hurbildu ginenek irakurri edo entzunda genituen horiek guztiak.

Askotan, baina ez da jakiten noraino ez den dena marketing kontu bat, betikoa beste era batera saltzeko ahalegina. Egubakoitzean ikusitakoak ikusita, baieztatu daiteke laudorio horiek guztiz benetakoak direla.

### ASKOTARIKO ESTILOAK

Berez Monterron parkean zen hitzordua, baina eguraldi petrala zela-eta, azkenean Amaia antzokian egitea erabaki zuten.

Eszenografia aldetik, sinpletasuna nagusi: lau aulki bakarrik. Ikuskizunak aurrera egin ahala soberan zeudela ere konturatu ginen, zutik eta dantzan eman zuten-eta ia denbora guztia.

*2001: A Space Odissey* filmaren soinu-bandako pieza ezagunenarekin ireki zuten kontzertua, eta hortik aurrera, festa eta erritmoa izan ziren nagusi. Taldeko lau kideek, bi neska eta bi mutilek, ausartak direla erakutsi zuten. Beldur gabe, euren biolin, biola eta kontrabaxuaren laguntzaz, Beethovenen bosgarren sinfonia dantzagarri bihurtu zuten; *O sole mio* edo Marilynek ezaguna egindako *I wanna be loved by you* abestiak jo eta kantatu zituzten eta argi utzi zuten sokazko instrumentuak tango, folk zein can-can piezak jotzeko ezinhobeak izan daitezkeela.

### IKUSLEEN KONPLIZITATEA

Musikari eta kantariak izateaz gain komiko bikainak direla ikusi ahal izan zen. Zentzu horretan, *Oh Danny boy* abesti irlandar hunkigarria kantatu zuteneko unea gogoangarria izan zen benetan.

Ez da erreza kontzertu baten ikusleak lehen minututik poltsikoratzea, baina horixe gertatu zen Amaia antzokian: txaloka, abesten, barrez jarri zituzten bertaratutakoak eta lan horretan Cathal O'Duill taldekidea izan zen *errudun* nagusia. Kostako da berriz ere gure artean horrelako ikuskizun freskagarria izatea.

**KONTZERTUA** > BILL LYERLY

# Lyerlyk maisua zergatik den erakutsi zuen

**NON:** Bergarako Espoloian.
**EGUNA:** Egubakoitza, uztailak 17.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**T.M.** > BERGARA

*Ostiral musikalak* egitarauaren barruan, Bill Lyerlyren kontzertua izan zen Bergaran egubakoitzean entzungai.

Eguraldiak oraingo honetan kale egin bazuen ere, apurka-apurka jendea hurbildu zen bluesman estatubatuarraren kontzertua ikustera, eta bertaratu zirenek, gustura asko entzun zituzten ordu t'erdian jotako 20 bat kantuak.

### BLUES ELEKTRIKOA

Blues akustikoa ere lantzen duen arren, egubakoitzean bluesaren alderdi elektrikoan barneratuta ibili zen Bill Lyerly.

Bergararrak euskaraz agurtu ondoren, Muddy Watersen bi kantu ezagunekin hasi zuen kontzertua Lyerlyk, biak ere erritmoa apur bat aldatuta eta modu berezian konponduta. Besteak beste, B.B. King, John Lee Hooker eta Bob Dylanen kantuak ere jo zituen, baina baita bereak ere. Hauen artean, *I won't care*, *FM Shoes* eta *Case of Jones* entzun ahal izan ziren.

Lyerlyk, gitarraren maneiu trebea erakutsi zuen, baita punteo irudimentsua eta ahots indartsua ere. Azpimarratu behar dira taula gainean izan zituen hiru laguntzaileak, hirurak ere Gasteizkoak: Mikel Oora bateria, Raul Quirce teklatua eta Jose Gonzalez baxu elektrikoa. Oinarri erritmiko indartsua eratu zuten, nagusiaren lana ederto lagunduz.

Espoloiko arkupetan errefuxiatuta zeuden entzuleek gehiago eskatu zioten Lyerlyri honek kontzertua amaitutakoan, eta musikaria prest agertu zen berriz ere ateratzeko.

### EGUBAKOITZEAN, AZKENA

Egubakoitz honetan bertan emango zaio amaiera *Ostiral musikalak* egitasmoari, Marta Sanchez hirukotearen eskutik.



35 urtetan bildutako esperientzia erakutsi zuen Bill Lyerlyk Espoloian. I.A.

**ERREKAN GORA** > ALAIN GIROUX & J.L. MAHJUN

# Ardoekin legez, urteak aldeko

**NON:** Eskoriatzako Azkoaga Enea.
**EGUNA:** Zapatua, uztailak 18.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**TXOMIN MADINA** > ESKORIATZA

Zer hobeto uztaileko gau baterako, terraza baten eseri eta lasai-lasai blues kontzertu bat ikustea baino? Horretarako parada izan zuten zapatuan Azkoaga Enea hotelean bildu zirenek.

Errekan Gora jaialdiaren lehen ekitaldia izan zen zapatukoa, eta Alain Giroux eta J.L. Mahjun beteranoek ez zuten hutsik egin.

**HIRU INSTRUMENTU**

Girouxek gitarrarekin eta Mahjunek mandolina eta biolin elektrikoarekin, azken 70 urteotan bluesak emandako piezak jo zituzten, baita bertsioren bat edo beste ere, tartean, Bob Dylanen *Knocking on heaven's door*. Txantxetarako beta ere hartu zuten, baita biolinarekin perkusioa eta distortsioak egiteko ere. Adina oztopo beharrean, aldeko izan zutela esan daiteke.

Eskenatoki inguruan jarritako argi jokoek giro berezia sortzen lagundu zuten; gauzak horrela, normala ikusleak gehiagorako gogoz geratu izana.



Giroux eta Mahjunek zapatu gaua girotu zuten Eskoriatzan. I.A.



GOIENKARIA

## Nealta Folak 'Iraultza' lehen diskoa aurkeztu zuen Aretxabaletan

Aretxabaletako Nealtta Fola eta No Hope taldeek kontzertua eskaini zuten zapatu arratsaldean herrian bertan, Urbaltz tabernaren kanpoaldean. Giro bikaina sortu zen emanaldian, eta jende dezente biltzea lortu zuten, baita Eskoriatza eta Arrasatetik joandakoak ere.

Aurten sortutako No Hope izan zen kontzertuari hasiera eman ziona; eta ondoren, Nealtta Fola hirukoak *Iraultza* bere lehen diskoa aurkeztu zuen; bertako zortzi abestiez gain, bertsioak ere jo zituzten.





# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***



**ZUGARRAMURDI.** San Juan egunean Zugarramurdiko (Nafarroa) koban, Akelarre izeneko zelai ondoan ateratako argazkia. /Argazkia: Itziar Egiguren Domínguez /Oñati



**TXERRIA.** Lazkaomendin ateratako argazia. Pipas tabernako terrazan dagoen zuhaitz baten azpian geunden lasai asko kafe bat hartzen eta argazkian agertzen den txerria gerturatu zaigu. Gure moduan, zuhaitzaren itzala eta leku horretako freskotasuna topatzen ibiliko zen seguraski. /Argazkia: Oihana Ezkurra /Arrasate




**LARRIALDI BAT BIDEAN.** Tunez-en aterata 2006ko udan. Bi herri artean ikusita, atsedena hartzeko area batean. Izugarria zen bere atzean ezer ez zegoela ikustea.. /Argazkia: Sergio Moreno /Antzuola



**ESKOZIAKO GAZTELUA.** Argazkia 2008 udan ateratakoa da, eskoziako gaztelu bat da, irla txiki artan zegoen bakarra gaztelua zen eta gainera bertan oranidik jendea bizi zen. A ze nolako humededadea egon behar zen bertan. /Argazkia: Oier Garai

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2009ko irailaren 19a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 6ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

## Sariak:

- **1. saria: Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.




**Babeslea:**

kutxa

**Laguntzaileak:**

Arrasate Bidaiak
Kiñu argazkilariak
Gure Ametsa jatetxea
Olympus

ASTE BUKAERA...

## Fernando Zufiriarekin




Fernando Zufiria Mojategin egoten da astelehenetik egubakoitzera. JOSETXO ARANTZABAL

# "Garbigailuekin lanean eta atletismo pistetan ematen ditut ordu gehienak"

Fernando Zufiria arrasatearra atletismo saileko arduradun eta erreferentea da askorendako

Duela 40 urte hasi zen lanean eta erretiroa hartzeko proposamena egin berri diote; ez du erabakirik hartu

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Fernando Zufiria (Arrasate, 1950) Arrasateko Atletismo taldeko arduraduna da. 59 urte ditu eta erretiroa hartzeko gutxi falta zaiola esan digu elkarrizketa hasi orduko: "Gaur bertan (eguena) egin didate erretiroa hartzeko proposamena. Egia esan, gogoa daukat, baina oraindik ez dut erabakirik hartu".

Lanean hasi zela 40 urte beteko ditu laster. Hasierako urteetan arduraduna izan zen eta azken 18 urteotan garbigailuekin ibili da lanean, guztiak Fagor enpresan. "Esango nuke nire bizitza osoa garbigailuekin lanean eta atletismo pisten artean egin dudala", diosku Zufiriak.

Goiz eta arrastsaldez egiten du lan. Goizean goiz jaiki eta lantegiko zortzi orduak bete ondoren, 17:00 aldera Mojategira joaten da. Mutikoekin entrenamenduak hasi aurretik, asteko plangintza egin eta aste bukaeran dauden txapelketak zehazten ditu. "Atletismoa ez da bakarrik entrenatzea eta lehiatzea. Egia da txapelketetan ikusten direla emaitzak, baina atzetik ordu asko hartzen duen lan zikina dago".

**TXAPELKETAK ETA TXAPELKETAK**

Zufiriak esan digu urteko aste bukaera ia guztietan daudela txapelketak: "Laster bukatuko ditugu probak, uztail bukaeran. Abuztuan, irailean eta urrian entrenatu egiten gara. Azaro aldera hasten da kros denboraldia eta apiril aldera pista estaliko denboraldia". Horregatik guztiagatik, astelehenetik egubakoitzera entrenamenduetan egoten da eta zapatuetan eta domeketan txapelketatan ibiltzen da korrikalariekin. Familiarekin eta lagunekin egoteko denbora nondik ateratzen duen galdetu diogu: "Etxetik Fagorrera joaten naiz eta handik Mojategira. Etxera heldu orduko berandu da eta afaldu ondoren 22:00etarako ohera joaten naiz. Hortaz, nirekin egon nahi duenak Mojategira joan beharko du, kalean oso gutxi ibiltzen naiz-eta". Baina aitortu digu zapatu goizetan, denbora duenean, paseatzera joaten dela: "Normalean Aretxabaleta aldera joaten naiz, bidegorritik Kurtzebarri eskolaraino edo, bestela, Elorregi aldera hartzen dut. Hori bai, 08:00etarako joaten naiz, jende gutxi dabilenean". Basoan ibiltzea atsegin duela esan digu, eta aldika Urbasara eta Opakuara joaten dela. Abuztuan herria *zaintzen* geratuko da. "Herria lasai dagoenean gustura ibiltzen naiz, eta abuztua oso lasaia da", dio. Era berean, lasai dagoenean liburuak irakurtzen ditu.

**FUTBOLA ETA ZIKLISMOA**

Atletismoa gertutik bizi duen arren, gainerako kirolei kasu gutxi egiten diela esan digu. "Futbola jarraitzen dut eta ziklismoa ere bai. Baina ez naiz zale amorratua eta egunero egunkarietako kirol albisteak irakurtzen duen horietakoa. Badaude kirol batzuk ez zaizkidanak gustatzen; besteak beste, saskibaloia eta eskubaloia. Ez dira batere erakargarriak niretako". Eta Frantziako Tourra ez duela jarraitzen diosku.

### "Nire lehen entrenamenduak Iturripen egin nituen: 365 metroko errautsezko pista zen"

13 urte zituela hasi zen Fernando Zufiria atletismo munduan, eta Iturripen entrenatzen zirela gogoratzen du: "Errautsezko pista zen eta 365 metro zituen. Hantxe ibiltzen ginen entrenamenduak egiten. Urte batzuk geroago Bergarako elkartean ibili ginen korrika Enrique San Nicolasen aginduetara". 18 urte zituenean elkartea sortzeko asmoz hasi zen lanean Alfonso Gorroñogoitiarekin. "Askok hartzen naute atletismo taldeko erreferentetzat, baina ezin ditugu ahaztu Jose Elortza, Luis Mari Mora eta Jose Luis Untzueta. Elkarrekin egin genuen begirale-entrenatzaile titulua ateratzeko ikastaroa". Laurek lan asko egin dute atletismoaren alde, eta emaitzak begi bistan daude: "Gipuzkoako eta Euskadiko atletismoan lekua egin dugu. Pertika-jauzilari onak ditugulako ezagutzen gaituzte". Entrenamenduak zuzentzeko laguntza handia duela esan digu eta atletismoan, behintzat, erretiroa hartzeko asmorik ez duela.

Kantari 2

# Bergarako ikuskizuna Goiena Telebistan

Bergaran ekainaren 14an grabatutako ekitaldiak

zugaz.com

Goitb Goiena Telebista

**Uztailaren 20tik 24ra, 20:45etik 21:15era**

Errepikapena: hurrengo eguneko 13:45ean; zapatuan 10:00etan eta domekan 14:15ean
























# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Oñati.** Etxebizitza jantzia salgai Olakuan. Hiru logela, bi bainugela, sukalde berritu eta jantzia, jangela eta garajea. 943 53 36 74 edo 635 06 24 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate** erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza ematen da errentan . Telefonoa: 696 72 27 00.

**Arrasate.** Estreinatzeko dagoen etxea errentan ematen da. Uribarriko eliza atzean dago. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Denek kanpora ematen dute. Igogailua eta garajea ere bai. 685 72 78 23 edo 670 84 52 46.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan, lau edo bost pertsonarentzat, unibertsitate ondoan. 605 77 51 71.

**Arrasate.** Erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean, lau logelako pisua ematen da errentan ikasleentzat. Prezio negoziagarria. 616 50 67 28 edo 943 79 56 42.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Sukaldea, lau gela, bi bainugela, igogailua. Erdialdean eta unibertsitatetik 5 minutura. Telefonoa: 686 20 04 72.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. 610 01 31 80 edo 943 03 78 20.

**Arrasate.** Hilean 620 eurogatik etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. Hiru logela. Telefonoa: 665 70 75 80.

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan. 615 75 11 47 edo 659 36 88 75.

**Donostia.** Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan datorren ikasturtean, ikasleentzat. Leku oso onean. 945 31 71 58 edo 678 82 06 46.

**Donostia.** Guztiz jantzitako etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Ikasleentzat, 2009-2010 ikasturterako. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailuarekin. 626 00 68 37 edo 943 21 97 50.

**Jaca.** Apartamentua ematen da errentan erdigunean, abuzturako. Kirolgunea, igerileku, jacuzzi, sauna, paddle leku eta squasharekin. 609 47 86 91.

**Oñati.** Eraiki berria den duplex atikoa ematen da errentan. 130 metro koadro. Jantzia. Aire girotua. Domotika. Lau logela eta bi bainugela. 610 73 34 88.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan, ETEO ondo-ondoan, etxebizitza handia ematen dut errentan, ikasleentzat, datorren ikasturtean. 688 63 82 39 edo 688 63 82 28.

**Peñiscola.** Apartamentua ematen da errentan. Guztiz jantzia. Instalazio pribatuekin: aparkalekua eta igerilekua. Hondartza eta itsas-pasealekutik 30 metrora. Telefonoa: 670 66 64 13 edo 943 77 19 09.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate** edo Debagoienean, familia serioak etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. Deitu ezazu telefono hauetara: 671 35 22 60 edo 657 20 30 71.

**Bergara.** Pertsona batendako etxebizitza txikia errentan hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara:653 38 56 12.

**Bergara.** Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07

**Debagoiena.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate edo Osintxun. Deitu ezazu telefono honetara:645 72 92 87

**Donostia.** Familiako baten ospitaleratzea dela eta, uztailean eta abuztuan etxeahartuko nuke errentan. Rosi. Deitu ezazu telefono honetara: 649 55 48 10.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen bi gelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da, Arrasate erdialdean kokaturik dago. Baldintza ekonomiko onak. 605 76 07 59.

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan erdigunean. Telefonoa: 663 65 78 43.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 250 euro gastu guztiak barne. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Pertsona bakarrarentzat. Telefonoa: 618 14 71 34.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Udaletxe ondoan. Sukalde handia, igogailua eta terraza dotorea. 688 64 10 13 edo 620 72 27 30.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik 5 minutura. Erguin aldean. Wi-fia eta berogailua. Pertsona bakarrarekin batera bizi izateko. 667 53 70 12.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen bi gelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Arrasate erdialdean dago. Baldintza ekonomiko onak. 605 76 07 59.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68.

**Bergarako** erdialdean gela ematen da errentan. 170 euro gehi gastuak. Deitu 15:00etatik 21:00etara. 670 40 74 53 edo 696 02 68 30.

**Bergara.** Logela bikoitza ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. 649 63 23 24 edo 696 38 10 07

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Aretxabaleta.** 40, 80 edo 120 metro koadroko lokal berriak saltzen dira. Erdigunean. 635 72 59 40.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Emakume nagusia zaintzeko emakume euskalduna behar da, irailetik aurrera. 649 31 42 42.

**Londres.** Familia euskaldun batek 'au pair' bat behar du Londresen, irailetik aurrera. Interesatuok bidali mezua helbide honetara: 'mirenlondon@hotmail.com'.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasaten** lan egingo nuke garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 626 78 22 95.

**Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 680 61 96 98

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu ume zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko, orduka. 676 28 87 84.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Esperientzia duen mutil zerbitzaria gertu barra zein terraza lanak egiteko, orduka. 610 97 82 88.

**Aretxabaleta.** 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943 79 54 21

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 680 49 11 45.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Deitu ezazu telefono honetara:659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663 65 78 43.

**Arrasate.** Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izateko gertu nago. 618 14 71 34.

**Arrasate.** Neska gazte eta esperientziaduna prest arratsaldez lana egiteko astelehenetik igandera, berdin etxeak garbitzen edo haur eta helduak zaintzen. 688 64 10 13 edo 620 72 27 30.

**Arrasate edo Bergara.** Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25

**Bergara eta Antzuola** Esperientziadun neska lan desberdinak egiteko gertu: garbiketa lanak, zerbitzari lanak, sukaldeko laguntzaile lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko... 943 78 71 89 edo 634 91 81 73.

**Bergara edo Antzuola.** Hemengo emakumea gertu umeak zaintzeko. 696 84 19 51

**Bergara-Arrasate.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Arduratsua naiz eta pertsona nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 639 94 48 65.

**Bergara.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Erreferentziaduna. Orduka nahiz etxean bertan bizi izaten. 630 88 54 46.

**Bergara** Garbiketa lanak eta jende edadetua zaintzeko lanak -etxean zein kanpoan- egiteko gertu egongo nintzateke. Eta baita lursailetan bakarrik zein bikoteka lan egiteko ere. Roy. . 697 85 28 84.

**Debagoiena.** 25 urteko eskarmentudun boliviarra igeltsero lan egiteko gertu. Gilberto. 654 24 13 27.

**Debagoiena.** Ainhoa Rezola. Euskalduna naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa orokorrak egiteko gertu nago. Esperientzia eta informeak dauzkat. Zerbitzari titulua eta esperientzia. Telefonoa: 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Boliviar gaztea gertu obran, pertsona nagusiak zaintzen edo tabernen garbiketan lan egiteko. Paperak dauzkat. Deitu ezazu telefono honetara: 606 78 35 94.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu sukalde laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko. Nacira Moreno. Deitu ezazu telefono hauetara:680 58 57 06 edo 659 32 69 92.

**Debagoiena.** Emakume gaztea garbiketa lanak orduka edo pertsona nagusiak gauez zaintzeko gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 609 23 39 52.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egiteko (etxe zein atari) edo nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 677 81 10 00.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko edo supermerkatuetan lan egiteko. Paperak dauzkat. Deitu ezazu telefono honetara: 666 01 13 42.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa orokorrak eta enpresetan edozein motatako lanak egiteko. Socorro Mora. 627 14 63 79.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egiteko. 5 euro ordua. Deitu ezazu telefono honetara: 669 53 02 92.

**Debagoiena.** Emakumea gertu gauez nagusiak zaintzeko. 646 77 85 31.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. Gauez ere bai. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, baita gauez edo ospitalean ere. Telefonoa: 943 88 85 14.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 696 57 03 89 edo 627 60 49 99.

**Debagoiena.** Gaztea gertu jatetxean lan egiteko. Sukaldaritza lanetan eskarmentua. 666 08 58 49.

**Debagoiena.** Gaztea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean, orduka; eta obrako peoi gisa lan egiteko. 618 14 05 40.

**Debagoiena.** Gizona gertu soldatzaile edo igeltsero lan egiteko. 666 01 13 42.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu tabernari aritzeko, behebarruak garbitzeko, pertsona nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile jarduteko. 651 52 57 24 edo 943 53 30 64.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, esperientziarekin, tabernari aritzeko prest. 634 45 28 77.

**Debagoiena.** Mutil euskalduna gertu desbrozadore lanak egiteko. 658 73 79 02.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu lanaldi osoan, lanaldi erdian edo orduka lan egiteko. Harategiko lanean esperientzia, zatitze salan. 677 73 79 59.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lanerako gertu. Makinen mantentzelanetan eta garraioan eskarmentua. Roberto. 638 10 29 63.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. 648 33 93 68 edo 943 79 76 39.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak zaintzeko edo ostalaritzan lan egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 666 21 82 94.

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egingo nituzke. 608 34 36 11.

**Delineatzaile,** dekoratzaile eta hirugarren ikasturteko arkitektura ikaslea edozein lanerako gertu. Autocad programarekin esperientzia. 676 61 15 47.

**Tornularia,** konbentzionalekoa, 20 urtetik gorako esperientziarekin. Debagoienean lan egingo nuke. 655 71 47 41.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Psikopedagogia** ikaslea naiz EHUn eta eskola partikularrak jaso nahi nituzke. 686 20 31 35.

**Solfeoa.** Solfeoko eskola partikularrak jaso nahiko nituzke, azterketatara libreki aurkeztu ahal izateko prestakuntza jasotzearren. 653 72 43 19.

**Zinpeko zaintzaile** lanetan diharduen neska naiz eta lanpostu horretako oposizioak prestatzen lagunduko didan norbait behar dut. Telefonoa: 685 77 66 21.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Adin guztiak. 635 73 77 21.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, Bolun, datorren ikasturtea prestatzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 616 12 56 29.

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eskola partikularrak ematen ditut uztailean. 660 15 51 01.

**Debagoiena.** Arkitekturako ikaslea uda guztian zehar eskola partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. Deitu ezazu telefono honetara: 666 87 18 52.

**Debagoiena.** Esperientzia handiko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu udan eta urte osoan. Bakoitzak nahi dituen eta komeni zaizkion ordu eta ordutegiarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 943 78 28 43.

**Lehen Hezkuntzako** eskola partikularrak ematen ditut. 2. mailako Gizarte Integrazioko ikaslea prest laguntzak emateko. Esperientzia euskarazko indartzeak ematen. Deitu ezazu telefono hauetara: 617 27 27 33 edo 943 53 38 19.

**Oñati.** Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan. 666 21 73 48.

## 6/ MOTORRA

### 602. EROSI

**125 cc-ko motorra** erosi nahi dut. Bigarren eskukoa eta merkea. Deitu ezazu telefono honetara: 615 73 79 11.

## 7/ ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Baserrirako** arratoi-txakurkumea hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 655 71 41 24.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Alpine kargadorea** salgai. Ondo dago, eta merke-merke. Deitu ezazu telefono honetara: 679 10 95 23.

**Angiozar.** 1.500 metro koadroko lursaila salgai, bi familiako etxea egiteko aukerarekin. 647 51 52 54

**Egongelako mahaia** salgai. Gerezi kolorekoa. Kaxoiekin. 943 79 79 34.

**Hozkailua.** Komertziorako egokia. Kristaldun atearekin. 508 euro. 685 73 93 55.

**Karro denda.** Brisa modeloa. Egoera nahiko onean eta merke-merke. Krisiari aurre egiteko, hoberena oporretan joateko. 605 73 75 30.

**Nokia 6124** telefono berria salgai. Vodafonekoa. 50 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 617 13 17 51.

**Umeen arropa** (3-6 hilabete) eta umeen artikuluak salgai. 943 79 79 34.

**Ur azpiko** arrantzarako tresnak: neoprenoa, berunak, aiztoa, fusila eta abar saltzen dira, merke-merke. Deitu ezazu telefono honetara: 679 10 95 23.

### 802. EROSI

**Lursaila Oñatin.** Orturako lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. 662 04 14 98.

### 806. GALDU

**Bizikleta** desagertu zaigu, ekainaren 30ean, eguerdian, atarian. Arrasateko Juan Carlos Guerra 5ean. Ikusi baduzu edo zuk badaukazu, deitu, mesedez. 699 78 87 36.

**Poltsikoko telefonoa** galdu nuen ekainaren 25ean Arrasateko Zaldibar frontoiaren inguruan. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. 646 62 19 51.

**Urrezko aliantza** galdu dut; "Idoia 16-9-06" dauka idatzita. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu. 615 73 29 44 edo 943 53 28 58.

### 807. AURKITU

**Eskumuturrekoa.** Ume baten urrezko eskumuturrekoa aurkitu nuen sanjuanetan, Arrasateko Okoretegi tabernaren terrazan. Galdu baduzu, deitu ezazu telefono honetara: 943 79 02 97.

**Umeen betaurrekoak.** Ostiralean, hilak 12, Arrasateko plazan umeen eguzkitako betaurrekoak aurkitu nituen. Ray Ban etxekoak dira eta BAZen utzi nituen.

**Urrezko katea.** Kalebarrenen urrezko katea aurkitu dut. AB 8-5-83/14-9-73 dauka idatzita. Galdu duenak, dei diezadala. 687 83 12 13.

### 808. BESTELAKOAK

**Autorako** umeen aulkia beharko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 650 96 23 08.

**Berogailu** elektriko bat beharko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 650 96 23 08.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Donostiatik Soraluzera** autoz joateko norbaiten bila nabil. Donostiatik 15:00etan irtenda. Ordaintzeko gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 618 21 42 59.

**Gasteizera.** Egunero Gasteizera joaten gara, San Prudentzion elkartuta, autobidez, Lakuara eta Ejiera. Udan 08:00etatik 14:30etara egiten dugu lan eta bestela, 17:00ak arte. Interesatuta egonez gero, deitu. 635 20 33 14.

DEBA
**GARAIA**
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 90 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zubiaurre, 55 $m^2$, 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | | | 4 | | | | |
| | 7 | 5 | | | 2 | | 8 | 6 |
| | | 6 | 5 | | | | 4 | |
| | | | 8 | | | | | |
| | | 7 | | | | | 5 | 4 |
| 3 | 5 | | | 6 | | 9 | 7 | 8 |
| 7 | | | | | 4 | | | 3 |
| | 6 | | 3 | | 8 | 7 | 2 | |
| 5 | 3 | | | | | | 6 | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



* Irudiko ibaia
Armeniako hiriburua
Portugalgo hiria
Arabako herria
Pl., zintzotasuna
Areago
Ados
Amorotoko auzoa
Gizen, lodi
AEBetako ur-jauzia
Aldartea
Erriberagoitiako auzoa
Sufrea
Lehia
Cabo Verdeko hiriburua
Gaubeako auzoa
Dauka
Dozena erdi
Instintu
Euskal fonema
Infusio mota
Tea ateratzekoak
Seta
Kontsonantea

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Zer dakarzu afaltzeko?




## hizki salda

Izozkien 5 zapore

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | A | S | U | S | T | A | G | T |
| A | L | D | E | T | U | I | O | G |
| R | F | I | E | X | E | A | X | J |
| R | E | T | M | G | E | T | X | O |
| U | F | Z | E | O | K | U | E | G |
| B | J | L | X | C | I | K | T | U |
| I | O | R | K | L | I | A | M | R |
| A | F | U | K | O | L | B | U | T |
| P | I | S | T | A | T | X | O | A |

## soluzioak





**Hieroglifoa:** Lau tomante.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 8 | 3 | 7 | 4 | 6 | 5 | 1 | 9 |
| 4 | 7 | 5 | 1 | 9 | 2 | 3 | 8 | 6 |
| 1 | 9 | 6 | 5 | 8 | 3 | 2 | 4 | 7 |
| 6 | 4 | 9 | 8 | 7 | 5 | 1 | 3 | 2 |
| 8 | 1 | 7 | 2 | 3 | 9 | 6 | 5 | 4 |
| 3 | 5 | 2 | 4 | 6 | 1 | 9 | 7 | 8 |
| 7 | 2 | 1 | 6 | 5 | 4 | 8 | 9 | 3 |
| 9 | 6 | 4 | 3 | 1 | 8 | 7 | 2 | 5 |
| 5 | 3 | 8 | 9 | 2 | 7 | 4 | 6 | 1 |



## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Malgutasunez jokatu beharko duzu diruarekin egoeren arabera. Batzuetan aurreztaile, besteetan eskuzabal. Maitasunean, egun biziak.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez dira egun lasaiak. Ez zaitez geldi geratu, energia soberan izango duzu-eta. Kontuz buruko eta belarriko minekin. Hondartzan eguzkia hartzeak on egingo dizu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Eman atseden zure giltzurrunei, edan ahal duzun ur guztia eta utzi janari gogorrak eta gatza. Gertaerak ohi baino astiroago joango dira.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Maitasun kontuetarako une egokia. Zuretzat oso berezia izango den eta zure zaletasun berberak dituen pertsona ezagutuko duzu. Baina ez ezazu amets askorik egin...

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Astroen arabera, lanerako eta ahaleginerako egun onak. Normalean baino biziago igarriko duzu zeure burua. Harremanen arloan izango dituzu zailtasun handienak.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Normalean baino harroago ibiliko zara. Ahalegindu txutxu-mutxuei arretarik ez jartzen. Azaleratu zure sentimenduak mugarik gabe.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Bolada ona diruaren aldetik. Etekinak jasoko dituzu zuk zeuk, edo zure bikotekide edo ingurukoengandik. Ahaztezina izango den ohiz kanpoko bolada bizi izateko aukera.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Ohi baino diru gehiago jasoko duzu. Hainbeste merezi eta luzaroan itxaron duzun soldata igoerarengatik izango da. Familiako norbaitekin haserretuko zara.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Jarri arreta egitasmo handizaleei eta ekonomikoki hobetzeko aukerei, gutxi barru sekulako indarra hartuko dute-eta. Horiek eramango zaituzte nahi duzuna lortzera.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Diru kontuetan hobeto ibiliko zara besteen aholkuak kontuan hartuz gero. Baliteke, aukera emankorrak ekarriko dizkizun lan baten inguruko berri onak jasotzea.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Diru sarrera eta galera ugari. Ahalegindu aurrezten. Hausnartu eta konpondu familiako arazoak. Osasun aldetik egun ezin hobeak, indartsu ibiliko zara.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Lagunek, ohiko gastuek eta ezusteko ospakizunen batek dirua eskuetatik kenduko dizute. Bizi-bizi ibiliko zara, eta kirolari ekiteko gogoz; igeriketari, esaterako.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Goi-mailako ikasketak.** Eusko Jaurlaritza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2009-2010 ikasturtean unibertsitate-mailako eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko diru-laguntzak. Epea: urriaren 16a.

**> Musika.** Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioa; Eresbil. *Juan Zelaia Letamendi* Musika-beka. Euskara eta musika elkartuta zabaltzeko aurkeztutako ikerketa-proiektuei laguntzea du helburu. Epea: abuztuaren 31.

**LANA**

**> Lanbide.** Debagoiena. Lanbiden bete gabe dauden lanpostuak: sukaldaria, zerbitzaria, komertziala, hortz klinikako laguntzailea, kutxa eta harategirako langilea eta turismo teknikaria.

**> Zuzendari kudeatzailea.** San Markoseko mankomunitatea. Epea: uztailaren 24. Informazio zabalagoa: *www.gipuzkoa.net/san-marcos*

**> Liburutegiko teknikaria.** Elorrioko Udala. Epea: uztailaren 24a.

**> Hainbat postu.** Berrizko Udala. Administrari laguntzaile balioanizduna, aukera berdintasun, enplegu eta gazteria teknikaria, eginkizun askotariko bi langile, peoia, bost garbitzaile, begirale soroslea. Epea: GAOn argitaratu zain.

**LEHIAKETAK**

**> Bideoklipak.** KREA Expresión Contemporánea. Bideokliparen bitartez artista edo musika-talde bat sustatzea helburu duten ikus-entzunezko obra guztiak onartuko dira. Epea: uztailak 31.

**> Literatura.** Pamiela argitaletxea; Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioa. Juan Zelaia IX. Saiakera Saria. Euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edo iritzi-lanak zabaldu eta sustatzea du helburu. Epea: irailaren 30a

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 20



**> Bergaran grabatutako saioak, Kantarin**
**20:45**

Ekainaren 13an eta 14an Bergaran grabatutako saioak emango dituzte. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako umeak.

**13:15** Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo.
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Elkartasun bideak.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 21



**> Basque Culinary Center proiektuaz jardungo dute**
**19:45**

Goiena Magazinean Miramonen egin behar duten proiektuaz jardungo dute. Horretarako, Jose Mari Aizega gonbidatu dute.

**13:15** Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Solaskide.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Lamien artean.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 22



**> Antzuolako jaien gaineko erreportaje zabala**
**22:15**

Julen Iriondo kazetariak egindako erreportajea izango da. Antzuolako jaien giroa bertatik bertara ezagutzeko aukera.

**13:15** Marrazki bizidunak Cloud Trotters.
**13:45** Kantari.
**14:15** Ikusmira.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Antzuolako jaixak.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 23



**> Markel Olano ahaldun nagusia 'Magazinea'-n**
**19:45**

Goiena Magazinean Markel Olano ahalduna elkarrizketatuko dute Eneko Azkarate, Monika Belastegi eta Goiatz Aranak.

**13:15** Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Antzuolako jaixak.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Elkartasun bideak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 24



**> Dj Bull musikaria Ilunpean saioan**
**18:00**

Jon Berezibarrek Dj Bull musikaria ekarriko du GOITB-ko platora. Ordubete inguruko elkarrizketa izango da.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Antzuolako jaixak..
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Oporrak eta bidaiak Arrasate Irratian**
**10:00**

Oporrak hartuko ditu Arrasate Irratiak uztailaren 24an ohiko emisioari dagokionez. Opor kontuak gertu ditugunez, hori ere islatuko da irratian. Besteak beste, Santiagoko bidea berbagai izango dute gaur, Arizmendikoekin. Bestalde, bidaiatzeko modu alternatiboa ere proposatuko dute: Interraila (eguaztenean).

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketa (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 *irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia.
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**14:00** Uda giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

## telealbisteak

**TELEBISTA** > GOENKALE

# Gaur eta bihar 'Goenkale' telesaileko azkeneko atalak emango dituzte

Modu honetan 15. denboraldiari amaiera emango diote; irailean, denboraldi berriarekin hasiko dira, alkate berriarekin

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

*Goenkale* telesaileko denboraldiko azken atala bihar, asteartea, emango dute. Hala, 15. denboraldiari agur esango diote eta irailean berriro izango dira kontu eta historia gehiagorekin. Puripurian amaituko du denboraldia *Goenkale*-k.

Ikasturte guztian ikusmin handia izan du telesailak: %14,2ko audientzia eskuratu du.

**AZKEN ATALA**

Azken atalean, Kandidok kolpe gogorra hartuko du: bere emazteak German hilketaren errudun zela bazekiela ohartuko da.

Bestalde, Jordik Leonor eta udalari iruzur egingo die eta Koldok kritika zorrotzak jasoko ditu. Nekanek Andoniren ustekabeko bisita izango du, baina honek ez ditu batere berri onak ekarriko.

Irailean hasiko den 16. denboraldian, Koldoren dimisioaren ondoren, herrira datorren alkatesa berria ezagutu ahal izango dugu. Semearekin dator alkatesa eta semea Ikerne eta Lukasekin zerikusia duen amodio kontuetan ibiliko da.

Azken atalak gaur eta bihar izango dira ikusgai 22:00etan hasita ETB-1en.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM BERRIA**

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.
**GAUR:**
- **Itsua izar begiekin:** Agure eta tirano baten istorio animatua. 10:30, 11:30 eta 12:00 (euskaraz)
- **Biziaren jatorria:** Gure unibertsoaren sorrera, eta biziarena lurrean. 13:00 (gaztelaniaz)
- **Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia. 18:00 (euskaraz) eta 15:30 (frantsesez)
- **Kartoizko Suziriaren sekretua:** Haurrei zuzenduta. 19:00 (gaztelaniaz)

**BESTE EKIMENAK**

Egunero 20 jarduera baihio gehiago antolatzen ditugu, museoko sarreran barne. Segway giza garraiatzailea, fakirraren ohea, BerzikIARTEA tailerra etabar…

**UDAKO ORDUTEGIA**

**Astelehenetik ostiralera:**
10:00etatik 20:00etara.
**Larunbata igande eta jai egunetan:** 11:00etatik 20:00etara.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak


ARRASATE
**Iradi Unamuno**
Uztailaren 13an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak guztion partetik eta oso ondo pasa zure eguna, muxutxu haundi bat bihotza!


ARRASATE
**Ane Olazabal eta Bingen Aranzadi**
Anek uztailaren 15ean, 12 urte eta Bingenek 16an, 6 urte. Zorionak aitita eta amamaren partetik.


ARETXABALETA
**Ihintz Unanue Urizar**
Uztailaren 16an 9 urte betetzen ditu. Zorionak, Ihintz etxeko guztien partetik eta ondo pasa dezazula zure eguna txokolatada eta guzti! Patxo handi bat danon partetik.


ARETXABALETA
**Elisabethe Barandiaran**
Uztailaren 16an 40 urte betetzen ditu. Atzerapenaz bada ere zorionak, Algortako lagunen partetik.


ARETXABALETA
**Laia Arriola**
Uztailaren 17an 7 urte betetzen ditu. Zorionak, politx! Patxo handi bat etxeko printzesiandako aitatxo, amatxo eta batez ere Anjeren partetik.


ARRASATE
**Maram Elbergui Elhajli**
Uztailaren 17an urtebetetzea. Zorionak eta patxo handia etxekoen partetik!


ELGETA
**Aner Garcia-Gango**
Uztailaren 17an, urtebete. Zorionak familiakoen partetik.


OÑATI
**Unai Erostarbe**
Uztailaren 19 35 urte betetzen ditu Zorionak, tio Unai! Ekarri pastel handihandi bat danok jateko eh! Ondo pasatu eguna. Etxekuak.


OÑATI
**Jon Freire Arzamendi**
Uztailaren 20an 7 urte betetzen ditu. Zorionak, bitxito. Ondo-ondo pasatu merendolan. Bi patxo erraldoi, Nora eta amatxoren partetik, polittori!
Mua!


BERGARA
**Sara Beristain**
Uztailaren 21ean, 10 urte betetzen ditu Zorionak eta muxu bat, etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Mikel Egia Barandiaran**
Uztailaren 21ean, 9 urte betetzen ditu. Uztailaren 21ean, 9 urte. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztion partetik.


OÑATI
**Mari Jose Servide**
Uztailaren 21ean, 22 urte. Zorionak, "Pepa"! Tulipan artian pedaleaitten egongo zaren arren, zurekin akordau garela eta asko maitte zaittugula! Egongo gara bueltan! Zure lagun eta familixiak.


OÑATI
**Iban Guridi**
Uztailaren 21 Urte 1 betetzen du. Maite zaitugunon aldetik mila zorion. Bizitzear dugun guztia zure jaiotzak ekarritako zoriontasuna bezain ederra izan dadila. Zure aitatxo eta amatxo!


ARRASATE
**Eva eta Yolanda Azkarate**
Uztailaren 22an. Zorionak, printzesak! Etxeko guztion partetik, bereziki Naiara, Asier, Julen eta Maider. Patxo handi bana!


OÒATI
**Amaia Anduaga Baladron**
Uztailaren 22an 10 urte betetzen ditu. Zorionak, Amaia! Zure ama, aita eta Maialenen partetik. Oso ondo pasatu zure egunean.


ESKORIATZA
**Aintzane Ortiz Simal**
Uztailaren 22an 6 urte betetzen ditu. Zorionak, printzesa! Egun zoragarria opa dizugu familia guztiak, eta bereziki zure lehengusuaren eta ahizparen partetik: Aimar eta Irune. Muxu pilopilo bat.


ARRASATE
**Enaitz Errasti eta Iker Zubizarreta**
Uztailaren 22 eta 23an, 7urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat familiak eta lagunen partetik.


ARRASATE
**Julen eta Irene Sandoval Antxia**
Julenek 22an, 5 urte eta Irenek 26an, 8 urte. Zorionak izeba-osaba eta lehengusinen partetik. Ondo pasatu!


OÑATI
**Katia Madina**
Uztailaren 23an 28 urte betetzen ditu. Zorionak kuadrilako danon partetik eta muxu handi bat!


ARAMAIO
**Mari Ayastuy Martinez**
Uztailaren 23an 4 urte betetzen ditu Zorionak, Maria, prexioxaaaa!!!! Egun politxa pasatu, familixa eta laguntxo danakin batera! Eta Anbotoko Marindako txokolatie preparau!


BERGARA
**Eki Muxika Iñurrategi**
Uztailaren 23an Urte bat betetzen du Zorionak, Eki, laguntxo danon partetik. Pa, pa eta pa. Guazen berriz pistinara!


ARRASATE
**Isabel Guerra**
Uztailaren 23an. Zorionak eta patxo handia alaba eta senarraren partetik!


OÑATI
**Izaskun Bolinaga**
Uztailaren 23an, urtebetetzea. Gogoratu! Guztiz beharrezkoak diren gauzak bakarrik eraman. Gorantziak Silviori!


OÑATI
**Naiara Campo**
Uztailaren 24an 28 urte betetzen ditu. Zorionak kuadrilakuen partetik eta ondo pasatu eguna!


ARETXABALETA
**Claudia Diaz de Mendibil Azkoitia**
Uztailaren 25ean 3 urte betetzen ditu Zorionak, Mari Sorgin! Fuerte egin putz 3 kandelak itzaltzeko. Ondo pasatu eguna. Muxu handi bat. Naroa eta Alba.


ARETXABALETA
**Anita Aretxaga eta Uxue Ibabe**
Uztailaren 25ean, amamak urteak betetzen ditu eta uztailaren 30ean, Uxuek 2 urte. Zorionak etxekoen eta batez ere Ainara eta Marenen partetik. Ondo-ondo pasatu!


OÒATI
**Izaro Agirre Zoilo**
Uztailaren 25ean Urte bat betetzen du. Zorionak, sagutxo. Urte bat, muxu handi bat Maren, aitatxo eta amatxoren partetik.


BERGARA
**Aitor Beristain**
Uztailaren 26an, 13 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxu bat, etxekoen partetik.


OÑATI
**Jon eta Maialen Bartolome Diaz**
Zorionak bikote! Jonek 14an eta Maialenek 19an. Ondo-ondo pasatu zuen egunian eta ia opari asko jasoten dittuzuen. Patxo handi bat familiaren partetik.


OÑATI
**Joxe Guridi Egaña**
Uztailaren 20an, 80 urte. Zorionak aittitta, laztan haundi bat etxeko danon partetik eta bereziki zure billoba eta birbillobaren partetik.


BERGARA
**Iñaki Iturbe**
Uztailaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Ondo ospatu zenuen eguna txinatarren artean? Lankide orientalak.


### ZORIONAK!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:
**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.
**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.
**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

## kuxkuxeroa



Edu Mendibil

# Antzuola, Salam Malecum

Politikoki zuzena ez den guztiak nahitaez polemika sortzen du gaur. Horren lekuko dugu **Mairuaren Alardea**. Antzuolarrak alardea *makilatzeko* beharrean aurkitu dira; ez bakarrik mairuaren aurpegiko azal beltzarana leunduz, baizik eta pertsonaiari beste duintasun bat emanez: Abderraman III.a moduan karakterizatuta agertzen da orain, zaldi dotorearen gainean, **Joseba Iparragirre** *jeneralari* ia-ia protagonismoa kenduz. Urtetan mairuaren rola jokatu zuen **Salvador Peñak** ez zuen

> **"Martxa honetan auskalo nola amaituko den Valdejunquerako bataila famatua"**

horrelako ohorerik izan eta asto gainean, behin eta berriz makurrarazita erretiratu zen iaz. Idazten edo kontatzen dutenek egiten dute historia eta martxa honetan auskalo nola amaituko den **Valdejunquerako** bataila famatua. Mairua nagusituko ote hurrengo urtean? Eskopetek ala sableek irabaziko dute? Abderramanen, kalifaren tropan ere emakumeak ikustera iritsiko gara egunen baten? Argazkiak ikusita, ezin ukatu *mairuen* (barkatu) arropak askoz ere ederragoak direla... Ni behintzat galtzaileen alde jartzen naiz beti..., are gehiago ustezko irabazleak antzuolarrak badira. Edozelan ere, zorionak alarde *baketsua* posible dela erakustearren. Hondarribian edo Irunen badute zer ikasi. Salam Malecum.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.




## asteburuko albuma

**Nazioarteko topaketa.** Arantzeta abizena Elgetatik dator, izen bereko auzotik, eta asteburuan erakutsi dute asko direla eta gai direla oso ondo antolatzeko.

Hala, urte batzuen lanaren ondorioz, abizen hori duten 170 bat lagun batu ziren zapatuan Elgetan, eta Arantzetarren nazioarteko lehen topaketa egin zuten.

Ezin esan nazioarteko deitura jartzea txantxa denik, Elgetan bertaratutakoen artean, elgetar askoz gain, jakina, Euskal Herriko beste leku askotako, Espainiako, Mexikoko, Venezuelako eta Kolonbiako senitartekoak ere izan ziren-eta. Azkenean ezin izan ziren etorri, baina, Argentinan eta Alemanian bizi direnak, besteak beste.

Lan zaila izan da guztiak koordinatzea, baina azkenean lortu dute. Horretan zeresan handia izan du Bilboko Javier Arantzetak gidatutako taldeak. 2000. urtean Buenos Airesko (Argentina) hotel batean Arantzetarren diasporako emakume batekin topo egitean jaio zen halako ekimena egiteko ideia. Emakume hark esan zien bere sustraiak ezingo zituela inoiz ikusi, eta lanean jarri ziren.

Zapatu goizean hainbatek Arantzeta auzoa bisitatu zuen. Horren ostean, eguerdi aldera, harrera ofiziala egin zieten udaletxean. Antolatzaileek eta Elgetako alkate Oxel Erostarbek hitza hartu zuten, eta herriko abesbatzak *Agur jaunak* eta *Elgetako eresia* abestu zuen.

Jarraian San Rokera jo zuten, XIX. mendean Joxe Agustin Arantzetak haritz bat landatu zuen leku berera. Han, bertsoak, aurreskua, trikitilariak eta plaka baten desestaltzea egin zuten. Bukatzeko, bazkari erraldoia izan zuten Espaloian.

Antolatzaileek jakinarazi digute Arantzetarren gaineko pasarteak jasoko dituen liburu bat prestatzen dabiltzala.





## jaiotakoak



**Auritz Kerejeta Gorostiza**
Arrasate > 3,800 kilo. Uztailaren 14an. Gurasoak: Ane Miren (Aramaio) eta Iñigo (Arrasate). Argazkian, Auritz jaioberria, sehaskan lo.



**Youcet Islam Malfi Atamna**
Bergara > 3,400 kilo. Uztailaren 13an. Gurasoak: Nadia (Argelia) eta Toufik (Argelia). Argazkian, Youcet jaioberria, sehaskan lo.



**Manex Elorriaga Martin**
Elgeta > 3,600 kilo. Uztailaren 13an. Gurasoak: Laura (Elgeta) eta Unai (Elgeta). Argazkian, Manex jaioberria, amarekin.



**Oier Portalo Gonzalez**
Aretxabaleta > 3,290 kilo. Uztailaren 15ean. Gurasoak: Jaione (Aretxabaleta) eta Felix (Aretxabaleta). Argazkian, Oier jaioberria, amarekin.



**Lucia De La Torre Hernandez**
Arrasate > 3,400 kilo. Uztailaren 17an. Gurasoak: Cintya (Arrasate) eta Jorge (Gatzaga). Argazkian, Lucia jaioberria, amarekin.



**Izaro Ramos Andres**
Arrasate > 3,470 kilo. Uztailaren 15ean. Gurasoak: Marian (Arrasate) eta Igor (Arrasate). Argazkian, Izaro jaioberria, aitarekin.




ASTELEHENEKO Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-07-20

**DJ Bull** > Musika jartzailea

# "Nire leloa: bakailoa soilik sagardotegian!"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

***Pobre de mi*-arekin harrapatu dugu Dj Bull sanferminetatik bueltan. Hala ere, datozen asteetan eguzkitan baino ilargipean bizitzen jarraituko du. Hark egin dezake inork baino hobeto Euskal Herriko festen gida. Musika jartzen, dagoeneko ezaguna egin da Bull jaietan. Hori bai, elektronika gutxi haren diskoen artean.**

**Taberna baten kasete batekin *rekopiak* egiten hasi eta Bilboko Aste Nagusian deejay bukatu. Ez zara makala!**

Aurten txosnetan jardungo dut, gune batean egunero ibiliko naiz. 16 urterekin edo hasi nintzen Tolosako Raku tabernan musika ipintzen eta hortik, lagunek esanda, festetan.

**Musika ez da behar adina zaintzen tabernetan?**

Are gutxiago txosnetan. Langile bat horretara dedikatzea asko eskatzea da tabernarientzat, baina zaindu egin beharra dago ze asko eskertzen da. Ez zaio benetan behar duen garrantziarik ematen gehienetan.

**Zein da jai giroan sekula huts egiten ez duen abestia?**

Asko daude, klasikoak. Esango nuke Amparanoiaren *Que te den* eta Kortaturen *Sarri-sarri*-rekin beti asmatzen dela, edozein dela giroa.

**Batetik bestera asko aldatzen da giroa, ala?**

Zertxobait bai. Adibidez, Gipuzkoan, Tolosaldean askoz ere geldoagoak dira, gehiago kostatzen zaie mugitzen hastea. Bizkaia aldean, Bilbon-eta, giroan berehala sartzen dira. Hala ere, leku guztietan tximuek bezala egiten dute dantza.

**Konparaziorik ere ez kubatarrekin.**

Gabonak eta gero beti joaten naiz hara eta nik eta guzti egiten dut dantza. Han ezinezkoa da ezetz esatea. Hango musika ere oso gustuko dut.

**Dultzaina ere eramaten duzu zurekin?**

Festetan musika jartzetik baino lehenago ezagutzen ninduten dultzainarekin eta juergazale hutsa naizelako. Juergan ere alboka nirekin eramaten dut.

**Ixiltasun apur bat eskertuko duzu, baina, astean zehar atseden hartzeko?**

Musika uneoro nabil entzuten, jartzeko asko entzun beharra dago-eta. Musika lasaiagoa entzuten dut astean zehar. Eta lagunekin trinketean; hori ohitura da, elkartean afaritxoa eta trinketean egitea. Askotan lan egiten dut asteburuetan eta eskertzen dut lagunen konpainia, beti ezin da-eta.

### TEST-A

**Jaioteria:** Irura. **Adina:** 34 urte. **Ikasketak:** Irudi eta soinu ikasketak **Talde bat:** La Pegatina. **Behin eta berriz eskatzen dizuten abestia:** Macacoren *Moving*. **Sekula ipiniko ez duzuna:** Technoa eta bakailoa. Bakailoa bakarrik sagardotegian. **Musika jartzeko toki bat:** Gaztetxeak eta, oro har, leku txikiak ditut gustuko. **Herri txikietan ala handietan?** Giroa desberdina da, biak gustatzen zaizkit. Jende multzo handia ez dut gustuko.



**JAIAK** Entziklopedia idatzi dezake Bullek euskal jaiei buruz. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



### Jausteko moduak

Shangaiko (Txina) bizilagunak zur eta lur gelditu ziren argazkiko eraikin erraldoia alde batera jausi zenean. Antza oinarria apurtu eta eraikina alde batera jausi zen. Gezurra badirudi ere, pertsona bakarra hil zen bertan.

http://www.planetacurioso.com

## biharamuna

**Iñigo Biain**

### Amaitu den ikasturteko notak

Kurtso amaiera heltzen den bakoitzean notak jarri behar izaten dituzte irakasleek urte akademikoa borobiltzeko. Aurtengo ikasturtea joan zaigu, eta testutxo honen bidez gure inguruko hainbat estamenturi notak jartzea otu zait. Hasteko, eta gure bizitzak gidatzen dituztelako, politikoak leudeke: *zero patatero*. Galtzaileek ez dakitelako hauteskundeen joko *demokratikoan* galtzen, irabazleek ez dakitelako horrenbeste botere nola kudeatu eta beste batzuk azterketetara ezin izan direlako aurkeztu ere egin. Gizartearen opioa den futbolean ere gutxi batzuek gainditu dute ikasturtea, eta gauza bera gertatu da kulturaren munduan ere (Kobetasonik, Mundumira...). Hezkuntza sistemak ere ez du aurtengo ikasturtean ahalegin berezirik egin, eta gero eta gehiago dira adingabeko munstro txikiei buruz entzuten ditugunak (indarkeria, bortxaketak, ...), eta zer esan botere judizialari (atzerapenak, *despisteak* ...) eta indar armatuei buruz ... Azkenik, fedeaz arduratzen diren horiek ere *kate* borobilak jaso dituzte 08-09 kurtso honetan. Hala ere, hauetako bat bera ere ez dugu errepikatzen ikusiko, sobera merezita ere.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +31 | +15 |

Tenperaturak gorako bidea hartuko du. Giro eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean bero-hodeiak sortuko dira.

www.euskalmet.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

WEBGUNEAN ➡ www.smsoinu.com

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON
Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION
Herrikoiak
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermin | FERMIN
San Martzialetako alardea | SAN MARTZIAL
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu...Ansar | ANSAR
Hartu...Argentinarra | ARGEN
Hartu...Mexikarra | MEXIKO
Hartu...Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
IKURRI4 ADARIAK MUSKARIA EGUZKILORE1
EH1 BABAK KALABERA1 EGUZKILORE2
BILBO BERAKATZAK POPATIK EGUZKILORE3

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.